# ttipi ttapa

402

2005eko uztailaren 14a • XXV. urtea



## 5ziri aldizkariaren lehen zenbakia
03

«Bortzirietako gazteok elkartu eta euskara bultzatzeko sortu dugu 5ziri aldizkaria» erran digute Nekane Maia aranztarrak eta Itsaso Goñi beratarrak.



## Doneztebeko XXVII. Herri Krosa
28

120 korrikalarik parte hartu zuten ekainaren 26an Erreka elkarteak antolatutako XXVII. Herri Krosean. Imanol Cruz Mateos donostiarrak irabazi zuen seniorretan.



04

BIZI GARBIA SINDIKATUA

# Azken hondakinen bilgunea ideki dute Senpereko Zaluagan


MUEBLES AMETS
larunbat arratsaldetan irekia
4000m² ERAKUSKETA moblez beteak:
• errustikoak
• modernoak
• klasikoak
• gazteentzako
• sukaldeak
• bainugelak
• atsedenaldia
• iluminazioa
• dekorazioa
• merkealdiak
• tapizak
Sastrin karrika, 3.2 - 3.4 Alkaiaga
31789 BERA
Tfnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443
INFORMAZIO GEHIAGO:
www.mueblesamets.com
Bisita gaitzazu
Atsedenerako sistemetan aukera haundia
• Viscolastico %100 edo HRrekin
• Elektrikoak aginte eta latexarekin
• Malguki-latex mixtoak
zure gorputzak eskertuko du!!
+
Uztaila, abuztua eta iraileko larunbat arratsaldeak itxita


elizondokobestak2005*
uztailak 23
"MIGUEL ANGEL Y EL MARIACHI DE LA CANTINA"
00:30
uztailak 24
TECHNORAVEGAUA
NASH + DJ AK
3:00
DEBALDE
Lur diskoteka
Besta on batzuk opa dizkizue!
Elizondo (Nafarroa)
www.lurelizondo.com

## DATUAK...

• Bortzirietako gazteek sortu dute «5ziri» aldizkaria, Euskara Mankomunitatearen laguntzarekin. Diotenez, *"gazteek egindako aldizkaria da, gazteentzako"*.

• 800 ale egin dituzte. Etxetara banatu dira ale gehienak eta Bortzirietako hainbat ostatutan ere utzi dituzte, irakurri nahi dituenarentzat.

• Itsaso Goñi beratarra eta Nekane Maia aranztarra dira aldizkariaren sortzaile eta laguntzaileetako batzuk.



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

**Nekane MAIA eta Itsaso GOÑI** *5ziri aldizkarikoak*

# «Bortzirietako gazteok elkartu eta euskara bultzatzeko sortu dugu 5ziri»

Joseba OLAGARAI

**Nongo bestatan edo noizko afaritan sortu zen aldizkariaren proiektua?**
Duela urte bat inguru sortu zen. Ez gara seguru oroitzen noiz eta nola baina seguraski afari edo bestaren batean izanen zen, bai. Bortzirietako gazteen artean zerbait egin nahi genuen, gure arteko harremana hobetzeko. Aldizkariaren ideia atera zen eta polita iduritu zitzaigun. Egia erran hasieran aunitz kostatu zitzaigun, ez genekielako nola egiten zen eta lanketa luzea izan zen, lehenbiziko aldia izanik, gauza aunitz egiteko zegoelako. Guk ez genekien deus, ez nondik hasi, gauzak nola lortu... baina poliki poliki forma hartzen joan zen. Lan frankoren ondotik azkenean atera dugu eta hagitz gustura gelditu gara.

**Aldizkariaren lehenbiziko orrialdean paratzen duzue: «gaztea naiz eta gerra ematera nator». Zein gerra da "5ziri"rena? Zer lortu nahi duzue aldizkariarekin?**
Egia erran gerrak ez ditugu aunitz maite, baina gerra ematera heldu gara, bai. Kontua da Bortzirietako gazteak ez garela aunitz elkartzen eta aldizkariarekin horixe lortu nahi dugu. Gazte guziak elkartu, eta zer-errana ematea. Eta hori, noski, gure hizkuntzan egitea, euskaraz. Euskara zabaldu eta landu nahi dugu 5zirirekin.

**«Edozeinek idazten ahal du eta edozer gauza kontatu, iritzia eman... aldizkari irekia da eta hartzen dugun guztiak izanen du lekua»**

**Zer dakar 5ziriren lehenbiziko aleak? Zer ikusiko du irakurleak zuen aldizkarian?**
Irakurleak gauza aunitz, eta hagitz desberdinak, harrautuko ditu «5ziri». Lehenbiziko alean nola elkartu garen eta zertarako sortu dugun aldizkaria azaldu dugu. Gertakari batzuk ere aipatu ditugu, denon ahotan egoten diren berri «ez hain ofizialak». Arantzako iñauterietako mozorroen inguruko erreportaitxo bat, Berako «Ameba» musika-taldeari eginiko umorezko elkarrizketa bat, azken aldian gazteek izan ditugun epaiketen ingurukoak... «Lardaxkan» atala ere badugu, «kontaktuak» egiteko. Gurekin harremanetan paratzeko helbidea *gu5ziri@gaztesarea.net* da. Edozeinek idazten ahal du eta edozer gauza kontatu, iritzia eman,... aldizkari irekia da eta hartzen dugun guztiak izanen du lekua.

**Zer du 5zirik bertze edozein aldizkarik, ttipi-ttapak adibidez, ez duenik?**
Gazteok egindako aldizkaria dela, gazteontzat. Etxean ibiltzeko aldizkaria da, irekia eta iritzia emateko prest dagoen edozeinek lekua izanen duen aldizkaria. Denei zabaldua, aski da kolaboratzeko gogoa izatea. TTIPI-TTAPA zerbait serioagoa da gure aldizkaria baino. Guk erraten ditugun gauzak ere aski serioak dira, pentsatzen ditugun bezala erraten baititugu, baina umore punttu batekin bustiz. Momentuan ditugun kezkak, pentsamenduak, gorrotoa sorrarazten diguten gaiak,... eta gauza aunitz gehiago sartzen ditugu, gure aldizkarian.



**Bederatzi hektareako lur-eremua hartzen du *"Zaluaga Bi" Azken Hondarkinen Bilguneak*.**

EKAINAREN 25EAN INAUGURATU ZEN "ZALUAGA BI"

# Azken hondakinen bilgunea ideki du Senperen Bizi Garbia erakundeak

**Azken urte hauetan Bizi Garbiak, Urdazuri ibarreko hainbat herri hartzen dituen zikinen biltzeko sindikatuak, urrats garrantzitsuak eman ditu ingurumena zaintzearen aldetik. Birziklatzearen aldetik aitzinaratze handia izan da, jendea, hunen garrantziaz konturatu delako eta enpresak segitu baitu hondakinen bereizteko guneak biderkatzen. Oraindik bide luzea badu ere, kanpainek erantzun baikorra izan du. Zikin guztiak ezin direlako birziklatu, 2004garren urtean Senpereko herrian den azken hondakinen edo birziklatu ezin diren hondakinen bilgunea betetzat eman zen. Beraz, sindikatuak irtenbide bat atzeman behar izan zuen eta gauzak ez zituen ttikiz ikusi.**

**Xan HARRIAGUE**

Ekaineko azken larunbatean, Senperen hainbat politikari elkartu ziren *Zaluaga Bi* deitzen den azken hondakinen bilgunea idekitze ofizialaren ekitaldirentzat. Hurbildu zen Frantziako ministro bat, Pirinio Atlantikoko Kontseilu Orokorreko kide batzuk eta inguruetako auzapezak. Bere garairako proiektu izigarri aitzindaria delako bildu da jende haundi hori guztia.

XXIgarren mende hastapen huntan azken hondakinekin zer egin arazo larria bilakatu da, eta hainbat eskualdetan buruhauste handiak sortzen ditu. Herri batzuetan hondakinak erretzen dituzte, bertze batzuetan bildu, baina lehengo moduan. Gehienetan ez dituzte errespetatzen Europa indarrean dauden arauak. Ingurumena eta legea errespetatzea abiapuntu hartuz, *Bizi Garbiak* azken hondakinen bilgune aitzindaria eraiki du.

**HELDU DIREN 20 URTEETAN 50.000 TONA URTERO**

Ahetze, Ainhoa, Arbona, Arrangoitze, Basusarri, Bidarte, Donibane Lohizune, Sara, Senpere, Urdazubi eta Zugarramurdiko herrien azken hondakinak hartzen ahalko ditu *Zaluaga Bik* heldu diren 20 urteetan,

50.000 tona urtero. Luze-zabal 9 Ha. dituen bilgune hau horrelako jarduera eramateko lur giro aproposean da, lur azpia buztinezkoa da, eta beraz, neurri batean ura trabatzen du. Gainera, inguratzen duten lurretatik banatua da. Itzuli osoan, zementuzko ur bide batek ondoko soroetatik etor daitezken uretatik babesten du. Azpiko lurrarekin estankotasuna segurtatzeko, zikinak hartuko dituen askaren azpia eta bazterrak bi mintz iragazgaitzez eta ziloetaz babesteko mintz batekin estaliak dira.

### Erabilera kontrolatua

Erabilpenaren aldetik ere arau batzuk segitu beharko dira, usainak eta euriak eragiten duen zabortegietako kutsadura ahal bezain apal atxikitzeko. Horretarako azpimarratu behar da aska handia banatua izanen dela 2.500 m²ko aska ttiki batzuetan, denboran zehar zikinak estali ahal izateko. Lau edo bost hilabetero, meta 4-5 metrora ailegatuko delarik, gainetik mintz iragazgaitza pausatua izanen da, eta orduan, ondoko aska ttikia betetzen hasiko dira. Aska handi guztian lehen geruza betea izanen delarik, lehen aska ttikiaren gainetik botatzen hasiko dira, eta hola osoki bete arte. Metaren altura 40 metrotan mugatua izanen da.

Bertzalde, segurtatzeko biltzen diren zikinak ez direla kaltegarriak, sartu-ateratzen diren kamioi guztiak pisatuak izanen dira eta erradioaktibitate-kontrola eginen zaie. Orduan, hondakinak igorriko dira momentuan betetzen ari den aska ttikira. Gunea ahal bezain eraginkorra izateko 30 tona dituen makina batek zapatuko ditu hondakinak.

Bistaren aldetik, ahal bezain traba gutti egiteko, aurrekontuan 300.000 euro inguru baztertuak izan dira gunea bere ingurunetik ez ateratzeko. 350 zuhaitz baino gehiago landatuko dira aska handia ahal bezainbat gordetzeko eta sarreran bisitariei harrera egiteko antolamenduak eginen dira.

Arduradunek azken hondakinen bilgune hortaz harro egoteko aitzakiak baldin badituzte, aitortu behar da proiektu aitzindari hunek gastu handia duela. Eraikitzeko lanak eta ikerketek 6,3 milioi euro balio izan dituzte. Gehiena Bizi Garbiaren esku da, baina Pirinio Atlantikoko Kontseilu Orokorrak 1.920.000 euro ekarri ditu, Akitaniak 34.000 euro, ADEMEk 34.000 euro eta Europako diru laguntzak espero dira.

## PROIEKTU AITZINDARIA AZKEN HONDAKINAK BIRZIKLATZEKO



UTZITAKO ARGAZKIA

**Usainen arazoari aurre egiteko, zikinak lauzpabost hilabetez mintz iragazgaitz batekin estaliko dituzte eta noizbehinka lur arruntarekn.**

Usainarena izaten da azken hondakineko bilguneek duten arazo haundienetako bat. *Zaluaga Bin*, traba hori kontrolatuko dute zikinak lauzpabost hilabete guziz mintz iragazgaitz batez estaliz eta noizbehinka lur arruntarekin.

Aska ttikien ixteak bertze helburu nagusi batzuk izanen ditu. Hala, hartziduraren bitartez hondakinek botatzen dituzten gazak, *iturgintzako* sare berezi baten bidez berreskuratzen ahalko dira. Energia gisa baliatzen ahal direnak zabortegiko *jusa* tratatzen duen makina kurriarazteko izanen dira, eta gainerakoak 900°tan kupel batean tratatuak izanen dira. Alde batetik doan den baliabidea aterako da, eta denbora berean, berotegi efektua duten gazak murriztuko dira.

*Zaluaga Biren* bertze berritasuna, zabortegiko *jusen* tratamenduan datza. Gainera, erosi diren ekipamenduak baliatuko dira orain betea den lehengo bilgunearentzat. Gazarekin egin bezala, honek ere iturgintzako sare baten bitartez bilduak izanen dira eta prozesu konplexu baten bitartez ahal bezainbat murriztuak izanen. Hastapen batean azido sulfurikoarekin nahasiak izanen dira. Ondotik, ikatz eta legarrezko iragazki batzuetatik pasatuko dira. Gero, berriz ere meheagoak diren batzuetatik, eta azkenean, ura aterako da alde batetik eta bertze aldetik zikin hozoak. Ura, aska berezi batzuetan atxikia izanen da eta kontrol baten ondotik balia daiteke ureztatzeko edo suhiltzaileen erreserba izateko. Gelditzen diren zikinak aldiz gazak kurriarazten dituen ekipamendutik pasatuko dira. Makina berri horrek hondakinak lurruntzen ditu. Hortik ateratzen diren basa idorrak zaku batzuetan bilduak izanen dira. Oraindik kaltegarriak izan daitezken zikinak, aldiz, bertze leku batera eramanak izanen dira erreak izateko. Segurtasunaren aldetik, antolamendu berezi bati esker zilorik badenez kontrolatzen ahalko dute eta beharra ikusten bada, estankotasuna geruza ainitzetan egina izanez, lurra hunkitu baino lehen arazoak konpontzen ahalko dituzte.

*Zaluaga Bi* ez da zabortegi arrunta. Teknologiaz betetako enpresa batekin antza gehiago du.

## Michel SOULE *Bizi Garbia sindikatuaren zuzendaria*



**Michel Soulé, Bizi Garbia sindikatuko zuzendari nagusia da.**

### *"Etsenplua izan nahi dugu Euskal Herrian eta Europan"*

**Zertako hautatu zinuten hain aitzindaria den proiektua?**
Bizi Garbia sindikatuak hartzen dituen herrien borondate politikoa izan da. 1995ean hasi ginen lehengo hautetsiekin, tartean hauteskundeak izan ziren baina beti bide berdina segitu dugu, eta hori, eraginkortasunaren aldetik izigarri inportanta da. Teknikaren aldetik hautu bat izan da. *Gaur egun*, badakigu nola egin behar den hondakinen murrizteko eta metatzeko, ingurumena ahal bezain gutti hondatuz, izan lurra, ura edo airea. Domaia litzateke jakitate horiek ez baliatzea. Gero onartu behar da desafioa izan dela, etsenplu bat izan nahi dugu Euskal Herrian, eskualdean eta Europan ere. Borondate politikoa, ezagutza eta finantziazioa baldin bada, lan eginez gero, holako proiektuak aitzinera eraman behar dira.

## • PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Berria 2005-07-02

*«Sei urtez harrobi batean egin nuen lan, eta orain igeltseroa naiz. Egia esan aldaketa handia da niretzat, aldamiotik jaitsi eta platora joan behar izatea. Aktorearen lana gehiago gustatzen zait. Igeltsero lana oso gogorra da. Ordu asko egiten dira lan». «Telebista ez zait askorik gustatzen. Oso gutxi ikusten dut, baina egia esan oso gustura ari naiz lanean»*

Diego RIAÑO
Leitzako aktorea
Berria 2005-07-02

*«Enpresen Liga Aspe eta Asegarceren esku dago eta mundu guztiak nolabait begiak ixten ditu, elitea hor dago, komunikabideak beraien zerbitzura daude eta eredua ez da aldatzen. Profesionalen mundua bideratzea gustatuko litzaidake. Gauzak modu desberdinean egiteko gaude eta etorkizunean egoera alda daitekeela eta jendeak hori espero duela iruditzen zait».*

Inaxio ERRANDONEA
Frontis enpresakoa
ARGIA 2005-06-26

## • 11 GALDERA LABUR •

**Baztandarren Biltzarra, Santioak, 12 Ordu Eskuaraz... uztaila da elizondarren hilabetea?**
Hala ematen du.

**Bat aukeratzea eskatuz gero...?**
Seguraski Baztandarren Biltzarra, baina bestak ere arras gustoko ditut.

**Elkarteko kide zara... Baztandarren Biltzarra egunean lana edo besta?**
Lana egitea tokatzen zaigu baina besta ere egiten dugu.

**Nafarroako bandera ez jartzeagatik kondenatu dute Baileko Udala... Zuk zein ikur jarriko zenituzke balkoian?**
Herriak nahi dituenak.

**Antzerkizalea zara... Zer iruditzen zaizu txupinazoa Alfredo Landa aktoreak botatzea?**
Penagarria. Ez dugu zergatik pertsonaiak inportatu behar. Baditugu nahikoak hemen.

**Zer sentitzen da Santiago egunean txistua jotzean?**
Topikoa bada ere, ilusio haundia.

**Santiago egunean Mutildantzako janzkera zaintzea eskatu dute. Protokoloa zaindu behar dela uste duzu?**
Muturreraino joan gabe, uste dut horrelakoetan garrantzitsua dela protokoloa.

**Zer behar da Baztandarren Biltzarra arrakastatsua izateko?**
Arrakasta handiena, barnean urtean zehar jende gehiago elkartzea izanen litzateke.

**Zure abizenarengatik dantza zalea zarela erraten ahal da... Plazan edo ostatuan dantzatzen duzu gehiago?**
Txiste txarrak aparte nahiko dantzazalea naiz, beraz, edozein tokitan.

**Urtean behin 12 Ordu Eskuaraz... Aski da hori Baztanen?**
Ez 12 ezta 24 ere, baina hori bestaren izena bertzerik ez da.

**Beartzundik Aldudeerako errepide berria egitea zer iruditzen zaizu?**
Momentuz ez dit inork horren beharra garbi azaldu beraz...



**Jexux BAILON**
*Baztandarren Biltzarreko kidea*






· PINTURAK
· DROGERIA
· Esmalteak
· Bernizak
· Lasurea urpintura
· Margo klase guziak

Profesionalentzat prezio berezia

PINTURAS PIKABEA MOLINERO

BERA

TURISMOA

# Bisitariei euskararen berri emanen zaie liburuxka baten bidez

## «Ongi Etorri! Hemen euskaraz bizi gara» argitaratu da




KULTURKARI

**«Ongi Etorri!, hemen euskaraz bizi gara» liburuxka euskaraz, gazteleraz, frantsesez, ingelesez eta katalanez argitaratu da.**

**ttipi-ttapa**

Baztan Balleko Etxean ekainaren 30ean egindako prentsaurrean, Baztango Udaleko, Bortzirietako Euskara Mankomunitateko eta Malerrekako Mankomunitateko ordezkariek, Virginia Aleman alkateak, Deñe Abuin eta Margari Capdequik, hiru erakundeek argitaratu eta turista eta bisitariei zuzendutako dibulgaziozko argitalpena aurkeztu dute: *Ongi etorri! Hemen euskaraz bizi gara*. Argitalpen horrek Baztan, Bortziriak eta Malerreka eskualdeko hizkuntza eta kultura errealitateari buruzko informazioa ematen du. Deñe Abuin Bortzirietako Euskara Mankomunitateko ordezkariak adierazi bezala, argitalpena 24 orrialdeko liburuxka da eta 5 hizkuntzatan idatzita dago (euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez eta katalanez). Nafarroako eskualde euskaldun honen gaineko informazioa Euskal Herriko, Nafarroako eta eskualdeko datu, mapa eta argazki ugariz dago lagunduta. 30.000 ale argitaratu dira, eta doan banatuko zaizkie turista eta bisitariei turismo azpiegiturako leku ezberdinetan: turismo bulegoetan, landa etxeetan, kanpinetan...

### 6.000 EUROKO AURREKONTUA

Argitalpenak 6.000 euroko aurrekontua du eta toki entitateen diru ekarpenaz gain, eragile pribatu batzuek ere interesa izan dute egitasmoari euren diru laguntza eman diote.

Virginia Aleman Baztango alkateak argitalpenaren xedea azaldu zuen: Baztan-Bidasoa eskualdera ailegatzen den bisitariak tokiko hizkuntza eta kultura berezitasunari buruzko oinarrizko informazioa izan dezala. *«Euskara eskualde honetako hemen balore kulturala da, haien nortasunaren eta bizimoduaren elementu garrantzitsua. Guk geure hizkuntza turismoari eskaintzeko berezitasun aberasgarri gisa ikusten dugu. Euskara ez da, inolaz ere, turismoa erakartzeko oztopoa, alderantziz ere, bisitariendako elementu erakargarria da. Bertzalde, ziur gaude gure hizkuntza egoeraren berri duen eta berezko hizkuntzak dakarren aberastasunarekin sentiberatuta dagoen turismoak lurraldeko berezko kultur nortasunaren iraupenean lagunduko duela. Guk halaxe ulertzen dugu geure garapena, gure nortasunean oinarritua»*.



**Ekainaren 30eko aurkezpen ekitaldian Virginia Aleman Baztango alkatea, Deñe Abuin Bortzirietako Euskara Mankomunitateko ordezkaria, Margari Capdequi Malerrekako Mankomunitatekoa eta Paula Kasares Baztango euskara teknikaria izan ziren Baztango Balleko Etxean.**





## BERA

# Uztailaren 24an eginen da XIV. Miguel Indurain zikloturista ibilaldia

Partehartzaileek bi ibilbide izanen dute aukeran

Amaia eta Ainhoa

Uztailaren 24an eginen da La Miguel Indurain XIV. Nazioarteko Ibilaldi Zikloturista. Orain arte bezala bi ibilbide izanen ditu, luzea 179 km.koa eta "laburra" 106 km.koa. Irteera goizeko 8:30etan izanen da eta helmugako kontrola arratsaldeko 17:00etan itxiko da. 18:00etan kiroldegian trofeoak banatuko dira. Txirrindulari bakoitzak diploma bat jasoko du eta urre, zilar edo brontzezkoa izanen da egindako denbora eta kategoriaren arabera. Izena emateko modu ezberdinak daude, horrela, aurre-inskripzioa postaz egin nahi duenak uztailaren 17a baino lehen C.C. Beratarraren izenean Berako 26. Posta Kutxara bidali beharko du. E-postaz ere ccberatarra@ya.com helbidean egin daiteke. Uztailaren 23an 15:00etatik 21:00etara edo uztailaren 24an 6:30etatik irteera 8:00ak arte kiroldegian inskripzioa egin daiteke, federatuek 20 euroren truke eta federatu gabeek 25 euroren truke. Arratseko 21:00etan Migelekin afaria izanen da eta horretarako 30 euro ordaindu beharko dira 30080080560200015532 kontu zenbakiara transferentzia eginez eta "Migelekin afaria" kontzeptua ongi zehaztuz. Aipatzekoa da Migel Indurain eta hiru amerikarrek ibilbide ttikian parte hartuko dutela. Honetaz gain, laguntzaileei dohainik bidai turistikoa eskainiko zaie baina eserlekuak mugatuak direnez, interesa dutenek 948631147 telefono zenbakira deituz izena eman dezakete.



ARGAZKIA: TELLETXEA

**Uztailaren 2an ospatu zen Kirolaren Eguna. Parte hartu zuten haur, gazte eta helduekin, Inaxio Errandonea, Patxi Vila eta Jon Bru kirolariak izan ziren.**

## Ekobera zozketako zenbaki sarituak

Ekainaren 25ean egin zen Ekobera lehendabiziko Azoka ekologikoa. Modu ekologikoan egindako produktuak dastatu eta erosteko aukeraz gain, bertze hainbat ikuskizun izan ziren Altzateko Plazan. Tartean, produktu ezberdinen zozketan parte hartzeko txartelak ere saldu ziren. Antolatzaileek zotz egin eta saritutako zenbakiak jakinarazi dituzte. Honela, produktu ekologikoen sorta 1169 zenbakiari egokitu zaio, landetxean bi pertsonendako asteburua 2255 zenbakiari eta bi pertsonendako afaria 0311 zenbakiari. Bi DVD irakurgailu ere zozketatu ziren eta 1666 eta 2005 zenbakiei egokitu zaie. Kanpoko DVD-a 2214 zenbakiari egokitu zaio; baxera, kopa eta labanen mahai-tresneria 2568 zenbakiari eta maleta 1251ari.

## FLASH

### *Alkaiagako bestak*

Santiagoak heldu dira eta uztailaren 25ean Alkaiagako bizilagunek auzoko besta ospatuko dute. Horretarako urtero egiten den bazkaria antolatu da eta seguruenik giro paregabean pasako dute auzotarrek.

### *Imanol Zubieta Memoriala*

Iaz garai honetan egin zen bezala, aurten ere Imanol Zubieta "Fash" Memoriala jokatuko da kiroldegian, uztailaren 15etik hilabete bukaera arte. Finala hilaren 29an jokatuko da, ortzilarala-rekin eta hurrengo egunean Zubiondo jatetxean afaria eta sari banaketa eginen dira. Areto futboleko txapelketa honetan parte hartzeko Toki Ona kiroldegian izena eman behar da eta afarirako txartelak ohiko lekuetan salgai izanen dira.

### *Dirulaguntza Ibardinera*

Europar Batasuneko Interreg III-A programa segitzen duen batzordeak, Nafarroako 5 entitateren proiektuei dirulaguntzak eman dizkie, eta horien artean, Ibardingo Merkatarien Elkarteari. Merkataritza eta zerbitzu azpiegiturak indartuz mugan dagoen Ibardingo merkataritza eremua garatu nahi dute, eta horretarako, Europar Batasunak 558.866 euroko subentzioa eman dio *Ibadan* Zerbitzu Elkarteari.







LESAKA

# Igerileku estalia egiteko dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak

## 2007rako akautuko dira lanak

Aitor AROTZENA

Nafarroako Gobernuak igerileku estalia egiteko proiektua onartu dio azkenean Lesakako udalari. 2 milioi terdi euroko aurrekontua izanen du igerileku berriak eta uda akabatu bezain abudo hasiko dira lanean. Kultur Etxeko proiektua egiteaz arduratu den Pedro Burgera arkitektoak diseinatu du proiektua eta erabat aldatuko du oraingo Lesakako igerilekuaren egitura. Igerileku estaliaren proiektua hasieran pentsatutako aurrekontutik aunitz pasatu bada ere, Juan Fermin Mitxelena alkatearen ustetan hagitz proiektu txukun eta aproposa bideratu dute. Nafarroako Gobernuak igerilekua estaltzeko modulo bat egina du, milioi bat terdi eurokoa eta diru horren erdia ematen du. Lesakako igerilekuaren proiektua hori baino milioi bat euro garestiago da. Hortaz, hiru urteko aurrekontuetan zatitu dute. Aurten 250.000 euro sartu dituzte aurrekontuan eta obrak igerileku-sasoia akautu bezain abudo hasiko dira. Adjudikazio-lanak udan eginen dituzte, irailaren bukaeran edo urrian, dena prest egon dadin 2007. urterako akautuko dute igerilekua.

### *Dantza jaialdia*

Bidasoaldeko Nazioarteko Gazteen Folklore Jaialdiaren barnean, uztailaren 25ean 20:00etan dantza jaialdia eskainiko dute Armeniako Aravot-Hayastan, Senegaleko Fambondi, Sri Lankako Sama Ballet Children's Dance Troupe, Irungo Ereintza eta Lesakako Tantirumairu dantza taldeek.

### *Trikitixa txapelketa*

Uztailaren 3an egin zen Baztan-Malerreka-Bidasoako VIII. trikitixa txapelketa. 13-17 urtekoen artean Eneritz Bengoetxea eta Edurne Errandonea gipuzkoarrak izan ziren irabazle eta 9-12 urte artekoetan Itsaso eta Irune Elizagoien etxalartarrak.





Argazkiak: Joseba OLAGARAI

### *Manolo Arozenari omenaldia*

**Bertso eskolari esker oneko ekitaldi gisa iragarri baldin bazuen ere, Manolo Arozenari ezusteko omenaldia antolatu zion Herriko Etxeak uztailaren 3an. Abesbatzak «Xalbadorren heriotzean» kantua eskaini zion eta gero, Udalaren eta Bortzirietako eta Baztango bertso eskolen oroigarriak eta esker oneko bertso eta solasak jaso zituen, baita Iñaki Murua, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko presidentearenak ere. Bertso eskolako bi ikaslek, Erika Lagoma eta Alaitz Rekondok aurresku berezia ere dantzatu zioten, txistulariek Manolo Arozenak berak sortutako doinua jotzen zuten bitartean. Manolok eskerrak eman zizkien udalari, plazara hurbildutakoei, bertso eskolan izan diren, dauden eta izanen diren ikasleei, Arrano elkarteari egoitza uzteagatik eta bertsozaleei, *«zuek gabe, ez baitzen bertso eskolaren beharrik izanen»*. Kattun egindako herri bazkariarekin eta bazkalondoan emandako bideoarekin eta kantatutako bertsoekin akautu zen omenaldi-ekitaldi beroa.**









ETXALAR

# Itxaso eta Irune Elizagoien txapeldun Etxalarko VI. Trikitixa txapelketan

## Udaleku Irekiak martxan daude bertze urte batez Amaia Agirre begiralearekin

**Joseba eta Nerea**

Behekoetxeko Itsaso eta Irune Elizagoien izan ziren protagonista joan den ekainaren 26an egin zen Etxalarko VI. Trikitixa Txapelketan. Euren kategoriako trikitilaririk hoberenak zirela erakutsi zuten eta lehenbiziko bi postuak eskuratu zituzten. Txapeldunak eta azpitxapeldunak izan ziren. Bi aldiz ateri ziren taula gainera, lehenbizi bat trikitixarekin eta bertzea panderoarekin eta gero aldrebes. Lan txukuna egin zuten bietan eta epaimahaikoen erabakiz lehen bi postuak merezi izan zituzten. Ez zen lehenbiziko aldia marka hau egiten zutela. Joan den urtean ere postu berberetan gelditu ziren. Bi ahizpekin batera, Alaitz Danboriena, Miren Lasaga eta Izaro Inbarren herritarrek hartu zuten parte txapelketan.



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

**Behekoetxeko Irune eta Itsaso Elizagoien ahizpak Etxalarko VI. Trikitixa txapelketan txapeldun eta azpitxapeldun izan ondotik.**

Irunek 12 urte ditu eta Itsasok 10. Sei urterekin hasi ziren Lesakako Trikitixa Eskolan eta ordutik etengabe hazten joan da euren ibilbidea. Soinu ttikiaz aparte, pandereta, kastañuelak eta hainbat perkusio tresna jotzen dituzte. Orain gainera, organoa ikasten ari dira Pello Apezetxea apezarekin. Txapelketen mundua ongi ezagutzen dute. Etxalarren egiten den txapelketaz aparte Lesakan ere parte hartu dute bi aldiz, Baztan Malerreka Bidasoaldeko txapelketan eta Oiartzunen ere izanak dira. Auzoko besta eta familiako bazkaritan maiz ibiltzen dira giroa alaitzen. Haurren egunean, Etxalarko bestetan, Gasna Feria Egunean eta bertze hainbat ekitalditan ikusi ditugu kantari. Oraindik gazte dira baina horrela segituz gero urrun ailegatuko dira musikaren munduan. "Maixa eta Ixiar" edo "Alaitz eta Maider" urrun gelditzen zaizkie oraindik baina martxa honetan Euskal Herri osoa dantzan paratuko duen hurrengo trikiti-bikotea Etxalarkoa izanen dugu: "Irune eta Itsaso".

### *Udaleku Irekiak*

Azken urtetan bezala, aurtengo udan ere Udaleku Irekiak martxan paratu dira. Bortziriétako Euskara Mankomunitatearen eskutik eta Amaia Agirre herritarra begirale dutela, uztailaren 4an hasi ziren herriko neska-mutikoak Udalekutan. Egunero Iharrian biltzen dira 10etan eta goiz osoa pasatzen dute ekintza desberdinetan: eskulanak, dantza, sukaldantza, irteerak, eta bertze hainbat josteta. Hirugarren urtea da Ipurtargi Aisialdi Taldeko Amaia Agirre udalekutan begirale dabilela eta erran digunez hagitz gustura hasi dira. «*Haurrek ongi pasatzea da helburua eta horretarako ekintza aunitz prestatu ditugu. Irteerei garrantzia emanen diegu eta herriko hainbat xokotara edo igerilekura joanen gara. Uztailaren 29a arte egonen gara udalekutan eta haurrentzat esperientzia polita izatea espero dugu*».















ARANTZA

# Ekaitza pilota taldea Euskal Herriko Konfederazioko txapeldun

## Hamasei haurrek izena eman dute udalekuetan

Nerea ALTZURI

Arantzako Ekaitza pilota taldea berriz ere herri txapelduna da. Euskal Herriko Pilota Konfederazioak antolaturiko Herri arteko txapelketako final erdietan Arantzak Hernani gaiditu zuen (Hernani da aurtengo Gipuzkoako txapelduna). Amurrion jokatu zuen finala Bizkaiko Igorre herriko taldearen aurka eta aranztarrek hirutik bi partida irabazi zituzten.

Kadete mailan, Imanol Mitxelenak eta Joseba Madariagak 22 eta 8 irabazi zuten.

Gazte mailan, Igor Arregik eta Beñat Mitxelenak 22 eta 11 irabazi zuten.

Haundietan, dagoeneko txapela Arantzara etorriko zela jakinda, Joseba Pikabeak eta Xabi Elizaldek 18 eta 22 galdu zuten Igorreko bikotearen kontra.

### *Hamasei haur udalekuetan*

Herriko 16 haurrek eman dute izena Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatutako udalekuetan parte hartzeko. Lesakako Txalaparta Aisialdi taldeko begiraleak izanen dituzte gidari uztailaren 18tik abuztuaren 12ra, astearte eta ortzeguneetan, 15.00etatik 18.00etara. Beraz, astean sei ordu emanen dituzte eguraldiaz, naturaz eta bertzelakoetaz gozatzen: sukaldaritza eta musika tailerretan, antzezlanak egiten, baserriren bat eta inguruko herriak bisitatzen, igerilekuetara joaten edo errekak garbitzen.



Argazkia: Gregorio MITXELENA

**Euskal Herriko Konfederazioko txapela irabazi zuten pilotariak, Luis Mari Retegi pilota-irakaslearekin eta Vicente Arozena alkatearekin.**



Argazkia: Xan HARRIAGUE

**Herriko Etxeko lehen solairu berrituaren inaugurazioa egin zen ekainaren 30ean. Alkate eta udal ordezkariekin batera, Angel Serrano Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioko zuzendari nagusia hurbildu zen diruz lagundu dituzten obrak ikusteko. Jose Miguel Errandonea zurginak egin ditu lanak.**

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA
LESAKA: Bittiria, 71-behea
Tel: 948 637 050
Faxa: 948 637 404
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

ALBERGEA
JATETXEA
ATERPE
ARANTZA
Tel: 948 634 179

BIZIKLETA TAILERRA
errepide, mendi, trekking
eta haurrendako bizikletak
Arropa eta osagarriak
Salmenta eta konponketa
BERA · Tel-Fax: 948 631 238

IGANTZI

# Uztailaren 24an ehun urte beteko ditu Olaetxeako Angel Manterolak

## Meza eta omenaldia eginen zaio elizan

Oskar TXOPERENA

Hilabete honen 24an beteko ditu urteak Igantziko Berrizaun auzoko Olaetxean bizi den Angel Manterola Danboriarenak. Horrela erranda ez dauka aipamenak berezitasun handirik. Bertzerik da, ordea, ehun urte betetzen dituela erraten badugu.

Azken urteotan ehungarren urtemuga gainditzen duen hirugarren igantziarra da Angel: 1994an Iribereko Patxiku Etxeberriak bete zituen 100 urte –103 betetzeko zorian zegoenean hil zen– eta 2001ean Berrizaungo Molineko Joxepa Iguzkiagirre iritsi zen mende bat betetzera, bete eta guttira hil bazen ere.

Jatorri gipuzkoarra du Manterola abizenak –izugarri zabaldua dago kostaldean–. Bere aitonak, Jose Manuel Manterola Uncin oiartzuarrak ekarri zuen abizena Igantzira. XIX. mendearen erdialdera Nicolasa Goñi Bidegain aranztarrarekin ezkondu zen eta sei seme-alaba izan zituzten (Igantzin bataiatutakoak behinik behin): Juan Fermin, Faustino, Maria Jacinta, Jose Angel, Pero Francisco (Angelen aita) eta Juan Bautista. Pedro Francisco Manterola Iribarrengo Bordako Dionisia Danboriarena Senperekin ezkondu zen eta hantxe jaio ziren euren zortzi seme-alabak: Jose Manuel (1888), Nicolasa (1890), Manuela (1893), Felipa (1895), Ponciana (1897), Martin Ricardo (1900), Maria Rosario (1902) eta Angel (1905). Beraz, bere familiako seniderik gazteena dugu Angel.

### Baserriari lotutako haurtzaroa

Garai hartako etxe eta baserri gehienetan bezalaxe, nekazaritza eta abelzaintzari lotutako haurtzaro eta gaztaroa gogoratzen du Angelek. Bere lehenbiziko jornala Berrizaundik Arantzara doaien errepidean harria xehetzen irabazteko aukera izan omen zuen, etxean gogotik estimatu zuten jornala, erraten duenez. Urte batzuk beranduago bere bizi guztia markatuko zuen lanbidearekin izan zuen lehenbiziko harremana: Etxalarko argindar zentralen eraiketa lanetan aritu zen hasieran eta ondotik, Berrizaungo zentralen kanalak egiten ere. Geroztik, erretiroa hartu bitartean, Berrizaungo zentralen zainketa lanetan eman ditu urte guztiak.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

**Zeinek erranen luke Angelek ehun urte beteko dituela hilabete honetan.**

### Diamantezko Ezteiak ere ospatzen ditu

1940an ezkondu zen Iribereko Inaxi Etxeberriarekin. Bere ehungarren urtemuga gutti balitz, platinozko ezteiak bete dituzte aurten ere Angel eta Inaxik. Berrizaungo Olaetxean bizi izandu dira ezkonduz geroztik. Bi seme izan zituzten, Javier eta Angel Mari. Gaur egun Angel Marirekin, bere emaztea Pili Zelaieta sunbildarrarekin eta bilobekin bizi dira Angel eta Inaxi.

Familiak eskatuta, uztailaren 24an, Igantziko elizan emango den mezarekin, eginen dute urtebetetzearen ospakizuna. Ez du urrun izanen, beraz, Angelek etxeko berotasuna. Ez dira gutti izanen, seguru aski, kanpotik etorriko direnak ere.

Zorionak Angel eta familia guztiari.

bortzIRUDI
Eztegara, 26 · BERA

SAROBE okindegia
SANDERS pentsuak

ATM S.A.
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS S.A.
Igantziko Bentak
✆ 948 63 74 11
• Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
• Enbalaketa elementuak eta flejeak.
• Garraio zintak eta mahaiak.
• Mantenu rodiloak.

ZJ
Zalain
jatetxea
Hostala
14 logela,
bainu eta TBrekin
Bera · Nafarroa

DONEZTEBE

# Umore eta giro ederrean joan ziren aurten ere Sanpedro bestak

Jaione Legarra Gazte Burrunbako presidenteak bota zuen txupinazoa





ttipi-ttapa

Gazte Burrunba taldeko presidenteak, Jaione Legarrak bota zuen altxaferoarekin abiatu ziren San Pedro bestak. Lehenbiziko aldia izan zen txupinazoa Doneztebeko zinegotzi edo alkate batek botatzen ez zuela. Ondotik, bortz egunez umore eta giro ederrean joan dira bestak. San Pedro egunean, bandera dantzaz gain, Trapatan dantza ikusteko modua ere izan zen.

Haurrak eta gazteak izan ziren bestetako hirugarren egunaren protagonistak. Haurrek, udal ttikia osatu eta bere txupinazoa bota zuten, joku ezberdinetan parte hartzeko. Gazte Burrunbako kideek, ginkana, bazkaria eta bazkalondoko joku irriemangarriak izan zituzten. Aste hondarrean, jende olde handia bildu zen Doneztebera, bestetako azken bi egunetaz herritarrekin batera gozatzeko asmoarekin.


















## MALERREKA



1973ko bestetan ateritako argazkia

# Elgorriagako Santioak uztailaren 23tik 26ra

**Santiago eguneko ilunabarrean Tortilla Txapelketa antolatu da parte hartu nahi duen guztientzat**

### Larunbata 23
#### Bezpera eguna

**20:00etan** Altxaferoa txistulari eta txarangarekin eta zopak.
**00:00etan** Jalisko Band taldearekin dantzaldia.

### Igandea 24
#### Haurren Eguna

**11:00etan** Haur jokuak
**12:00etan** Beti-Alai txaranga.
**17:00etan** Herriko mus txapelketa eta merendua.
**Arratsaldez eta gauez** FRANZISKOrekin dantzaldia plazan.
**24:00etatik 4:00etara** dantzaldia Jalisko Band taldearekin.

### Astelehena 25
#### Santiago eguna

**10:00etan** argisoinua.
**11:00etan** Meza Nagusia.
**12:00etan** aperitiboa Beti-Alai txarangak alaiturik.
**17:00etan** partxis lehiaketa.
**19:00etan** Gorriti.
**20:30etan** tortilla txapelketa.
**00:00etan** JOSE ANGELen eskutik dantzaldia.

### Asteartea 26

**12:00etan** toka txapelketa.
**14:00etan** Zikiro jatea MODESTO akordeolariaren eskutik.

ETXEBERRIA ZURGINDEGIA
Ongi pasa bestetan!
✆ 948 45 03 10 • ELGORRIAGA

Elgorriagako Udalak besta zoriontsuak igaro ditzazuela opa dizue
Gora Santiagoak!

Elgorriagako bainuetxea
• 60 LOGELA BIKOITZEKO HOTELA ***
• 240 LAGUNENDAKO BAINU-EREMUA
– Sauna, bainu turkiarra, masaia...
– Bizkortze terapiendako igerilekua
• JATETXEA eta KAFETEGIA
• LIBURUTEGIA eta HAURTZAINDEGIA
• URAREN MUSEOA eta URAREN BIDEA
Laister zuen zerbitzura



MALERREKA

# Iturengo bestak uztailaren 15etik 18ra

## Igandean pilota partidua eta herri kirol jaialdia izanen dira





**Lehen, bertze zenbait herritan bezala, Iturengo bestak ere San Martinetan egiten ziren. Gaineko argazkia halaxe ateria da, 1956ko azaroaren 11n. Berrikiago, eguraldi hobearekin besta-giro hobea izaten dela-eta, uztailera aldatu ziren. Beheko argazkia ere garai beretsuko da. Garai hartan Iturenen bazen dantza taldea, eta aurten, handien eta ttikien dantzari taldeak sortu dira. Bestetan dantzatuko dute lehen aldiz.**

### Ortzirala 15

**11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00ak arte** haur jokuak: Txirrista, piloten etxea, giza-tiragoma (goming). **19:00etan** Iturengo dantzarien saioa. Ondotik Txokolate jatea izanen da herriko plazan. **20:00etan** Txupinazoa-Gora Ittungo bestak!!! Gero kalejira trikitilari eta txistulariekin. **00:30etatik 04:00ak arte** dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin.

### Larunbata 16

**10:00etan** kalejira trikitilari eta txistulariekin. **12:00etan** pilota partiduak herriko haurren artean. **18:00etan** trikitixa emanaldia, Mindegia trikitixa eskola, Josune eta Amaia Irastorza eta Lesakako trikitixa eskolaren eskutik. **20:00etatik 22:00ak arte** dantzaldia AGERRALDE akordeolariarekin. **0:30etatik 4:00ak arte** musika JALISKO BAND taldearekin.

### Igandea 17

**10:00etan** kalejira trikitilari eta txistulariekin. **11:00etan** Meza Nagusia. **12:00etan** herriko akordeolarien emanaldia. **13:00etan** pilota partidua: ALTZUGARAI-ELIZALDE; IRAOLA-ERASO. **18:00etan** Herri Kirol jaialdia. Dantzaldia GAUBELA taldearekin egunoroko orduetan.

### Astelehena 18

**1:00etan** kalejira trikitilari eta txistulariekin. **14:30etan**, urtero bezala herri bazkaria bertsolari eta guzti. Ondotik kalejira. **17:30etan** Mus txapelketa. Dantzaldia AGERRALDErekin egunoroko orduetan eta besten akitzea.






## MALERREKA




UTZITAKO ARGAZKIAK

**Goian, Iturengo plazan neska koadrila soka saltoan. Beheko argazkian ageri denez, Arbolaren Eguna ospakizun handia izan bide zen. Umeak erdian, emakumeak eta gizasemeak bi bazterretan, eta azken hauen artean apeza.**

# Leire Ortuoste da Zubietako alkate berria

### Zazpi zinegotzi beharrean 5 baino ez daude momentuz

**ttipi-ttapa**

Uztailaren 5ean ofizialdu zen kargu aldaketa Zubietako Herriko Etxean. Jon Mikel Aragonek alkate kargua utzi du arazo pertsonalengatik, eta orain Leire Ortuoste Garcia da Zubietako alkate berria, hautes-zerrendan ordezko postuetan azkena aurkeztu zena. Boro aurretik, gainerako zinegotzi guztiek uko egin zioten alkate izateari.

Berez, 250 eta 1.000 biztanle arteko herria izateagatik, 7 zinegotziko udalbatza izatea dagokio Zubietari. 2003an udalbatza berria osatu zenean, Mª Jesus Goizuetak ez zuen hartu zinegotzi kargua, eta beraz, 7 zinegotzirekin izan beharrean seirekin hasi zen legealdi berria. Tartean, Oinatz Asensio zinegotziak kargua utzi behar izan zuen albinte izateko oposizioak gainditu zituelako, eta udal funtzionario eta hautetsi izatea bateraezinak direlako.

Legearen arabera, Elutsa hautes-elkarteak 2 herritarren izena proposa diezaioke Nafarroako Hauteskunde Batzordeari, eta harek onartuko balu, horiek zinegotzi-agiria jasoko lukete zuzenean.

ttipi ttapa
☎ (0034) 948635458



Iturengo Udalak Besta zoriontsuak opa dizkizue Iturendar eta bisitari guztioi


AURTITZKO OSTATUA
Aurtitz auzoa
ITUREN - NAFARROA
Tfnoa.: 948 451 653


ALTXUNEA ERRETEGIA
ITUREN
Tfnoa: 948 450 410


BORTZIRI
UNSION ANAIAK
sukaldeetako altzariak
ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891
Faxa: 948 637 511

ARANO

# Santiago bestak uztailaren 22tik 26ra

## Santiago egunean, kirol ikuskizun asko goiz-arratsaldez



Aranoko Goiko Karrikaren ikuspegi berezia

Koldo Klaser

### Ostirala 22

**19:00etan** Txupinazoa. **22:30etan** mus txapelketa.

### Larunbata 23

**12:00etan** Herriko produktuen dastaketa: Gazta eta sagardoa **18:00etan** Pilota txapelketaren finalak: Mutilak eta neskak. Eskuz eta palaz. **20:30etan** Meza. **22:00etan** Ohiko oilasko jatea. Ondotik ETXABE ANAIAK goizalderarte.

### Igandea 24
Umeen Eguna

**10:00etan** diana dultzainarekin. **11:00etan** Meza. **12:30etan** Pilota partiduak. Alebinak: Arozena-Zugarramurdi; Elorza-Lizeagaren kontra. Jubenilak: Zabala-Gorrotxategi; Narbarte-Narbarteren kontra. **18:00etan** Gorritiren ikuskizuna eta ondotik txokolatada **22:00etan** Bertso antzerkia "Iraulio panttalone bertso kabiyareren eskutik". **23:00etan** Imuntzo eta Belokirekin dantza giro ederra goizalderarte.

### Astelehena 25
Santiago Eguna

**10:00etan** Diana dultzainarekin. **11:00etan** Meza. **12:30etan** ohiko pilota partidua Arano eta Goizuetako afizionatuen artean: Arano eta Goizueta (Gascon–Legarreta; Loiarte– Eskudero. **18:00etan** aizkolariak: Nazabal eta Larretxea. Harrijasotzailea: Migeltxo Saralegi bere harri ezberdinekin. Ikusgarriren erakustaldia motozerrarekin. **19:30etan** Bertsolariak: Andoni Egaña, Amets Artzallus, Aitor Mendiluze, Eztitxu Elizagirre. **21:00etan** kalejira Tapia eta Leturiarekin.

### Asteartea 26
San Joakin eta Santa Ana Jubilatuen Eguna

**10:00etan** Diana. **11:00etan** Meza. Ondotik hamaikatakoa konzeju ostatuan. **12:30etan** Pilota partiduak afizionatuen artean: Zabala- Arruti eta Huizi-Jauregi. **14:00etan** Bazkaria konzeju jatetxean . Arratsaldean Bertsolariak: Imanol Lazkano eta Joxe Agirre. JAZBANA taldea.

## Bi urtetan 115.000 euro inbertituko dira mendia hobetzeko

ttipi-ttapa

115.160,42 euroko aurrekontua du (BEZ barne) Aranoko Udalak mendia hobetzeko prestatu duen proiektuak. Lanak 2005 eta 2006an egin beharko dira eta nork eginen dituen erabakitzeko, enkantea eginen da. Interesatuek uztailaren 28ko eguerdiko 13:00ak baino lehen aurkeztu beharko dituzte euren proposamenak. Proposamen horiek abuztuaren 4an irekiko dituzte, arratsaldeko 18:00etan udaletxean eginen den bileran.



Benta Berri jatetxea
Larunbatetan eta astelehen arratsaldetan itxita
Sukaldaritza tradizionala
© 948 514018 • Urumea • ARANO

GURE AMETSA jatetxea
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu
© 948 514000 • ARANO

Aranoko Udalak
jai zoriontsuak opa dizkizue herritar eta bisitari guztiei

# Elizondoko bestak

Herriz herri - bestaz besta

# 05



## Santioak

uztailaren 22tik 30ra

arteka
arquitectos técnicos aparejadores

- Olioak
- Akuarelak
- Grabatuak
- Eskulturak
AUZA
GALERIA - EXPOSICION
Ongi pasa bestak!!
Felices Fiestas!!
Tfnoak: 948 580 046 - 609 222 181
Berokoetxea Getaria, 2 (elizaren ondoan) ELIZONDO

IPARLA kirolak
Santiago, 51 • ELIZONDO

Ongi pasa bestak!!
abartan
CERRAMIENTOS • ITXITURAK
PVC eta ALUMINIOA
- ateak - leihoak - kontraleihoak
- manparak
- zeramikak (fabrikako prezioetan)
- kontsumo gutxiko kalefakzio elektrikoak
Santiago 56, bajo • 31700 ELIZONDO
Tel. 948 581 152 • 667 264 025 • 686 970 725

Albaitaritza
PRODUKTU ZOOSANITARIOAK

ALBAIKIDE
ALBAITEROAK 902 169 169

Euskal baserritarren zerbitzura

www.albaitaritza.com

Merkataritza: Botika • Osagarri mineralak
Bildots eta aratxeendako esnea
Xaboi eta desinfektatzaileak
Materiala • Hazia • Nitrogenoa • MVE garrafak

## Rock kontzertu, zesta-puntako pilota partidu, eta ballet ikuskizunekin hasiko dira Elizondoko bestak

### UZTAILAK 22 Ortzirala

**24:00etan:** Foruen plazan, rock kontzertua.

### UZTAILAK 23 Larunbata

**17:30etan:** Elizondoko frontonean, zesta-puntako kinielak lehen mailako profesionalekin.

**21:30etan:** Foruen plazan, dantza eta ballet ikuskizuna Kaukasoko dantzarien eskutik: LA AUTÉNTICA LEYENDA izeneko emanaldia. Sarrera doan izanen da eta plazan jarlekuak izanen dira ikusgarriaz gozatzeko.

**24:30etan:** Foruen plazan, rock kontzertua, Elizondoko ostatuek antolatuta eta Elizondoko Herriaren laguntzaz:
**24:30etatik 02:00etara:** MAL DE OJO
**02:00etatik 03:30etara:** POTTOKA





## UZTAILAK 24 Igandea

### *Santio bezpera*

**12:00etan:** Baztan Balleko Etxeko balkoitik suziria botako da. Lehendabiziko suziria Angel Mari Olabe "Piston"eri eskainia. Berarekin batera, Alfredo Landa aktoreak suziria botako du bestei hasmenta emanez eta ondotik baztanzopak izanen dira plazan.

**Ondotik:** Erraldoi eta Buruhandiak, Baztango Gaiteroekin, Jaime Urrutia, Ziga Plaza, Braulio Iriarte, Mendinueta, Santiago eta F. J. Iriarte karriketan barrena ibiliko dira, Zahar Etxean akitzeko.

**16:00etan:** "Elizondoko Herria" Margo Lehiaketa: kanpoan egina eta teknika librearekin. Haurrei zuzendua. Ondotik, partehartzaile guztientzat merendua. Sarien banaketa, materiala, kontrola, eta erakusketa Balleko Etxeko arkupean izanen dira.

**17:00etan:** Baztan frontoian, animalien ikuskizuna: poniak, basurdeak, eta oilar-jokoa (Haurreei zuzenduta eta doan).

**18:00etan:** Riau-Riau. Alkate-juradoa, korporazioa eta gonbidatuak elizara abiatuko dira Salvea entzutera. Jaime Urrutia, Virgilioko malda, eta Santiago karrikatik barrena, Erraldoi eta Buruhandiak, Baztango gaiteroak, Xalbador txaranga, Elizondoko txistulariak, Baigorriko gaiteroak, Ustariz txaranga eta Elizondoko Txistulari Gazteekin. Ibilbidean ttantta goxoa eta pastak izanen dira.

**19:00etan:** Foruen Plazan dantzaldia MOMPASekin.

**20:00etan:** Elizondoko koralak, Isabel Lakarren zuzendaritzapean, usaiako *Eslabaren Salvea* eta Santiagoren Himnoa kantatuko ditu elizan.

**24:00etan:** Foruen plazan, Latinar eta Kubatar Salsa ikuskizuna TAHUMA taldearen eskutik.

Eguerdian, arratsaldean eta gauez, karriketan animazioa Elizondoko txistulariak, Baigorriko Gaiteroak, Baztango gaiteroak, Xalbador Txaranga eta Ustarizko Txarangaren eskutik.














Oskariz
anaiak, S.L.
Tel: 948 581 822 - Braulio Iriarte, 4 behea - ELIZONDO

ESKIZ
INFORMATIKA ZERBITZUAK
Ongi pasatu bestak!!
Orain helbide berrian: Mauricio eta Felix plaza ondoan
Tel: 948 581 822 - Braulio Iriarte, 4 behea - ELIZONDO

BAZTAN
Ferreteria
ELIZONDO

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE
ANZABAL
AGENTZIA
Borden salmenta eta etxeen alokairua
Zurich Aseguruak
Lan aholkularitza
Aholkularitza fiskala
Inmobiliaria
Gestoria
Santiago, 15 - Tel-Faxa: 948 580 804
ELIZONDO

ArkiLanak SL
ARANTXA CIAURRIZ IRAIZOZ Arkitektoa
JOSEBA CIAURRIZ IRAIZOZ Arkitekto Teknikoa
Tfnoa: 948 58 19 31 e-posta:arantxaci@terra.es
Santiago, 55 ELIZONDO
ETXEBIZITZA PROIEKTUAK
URBANIZAZIO PROIEKTUAK
ETXE BERRITZEAK
NABEAK
KONTSULTAK
LUR NEURKETAK




## UZTAILAK 25 Astelehena

### *Santio eguna*

**09:30etan:** Argi Soinuak txistulari eta gaiteroekin: Elizondoko txistulariak, Elizondoko txistulari gazteak eta Baigorriko gaiteroen eskutik.

**11:30etan:** Meza Nagusia. Elizondoko koralak, Elizondoko Bandak lagundurik, Eslabaren Meza eskainiko du. Herriko ordezkariak eta Baztango Udalekoak, Erraldoi eta Buruhandiek, Baztango Gaiteroek, Baztango Ekuatoriar dantza taldeak, dantzari ttikiek, Baztango Dantzariek, Elizondoko Txistulari Gaz-

## Meza nagusian abesbatzak kantatuko du, bandak lagunduta

teek eta Elizondoko Bandaz lagunduta elizara hurbilduko dira.

**Ondotik:** Erraldoi eta Buruhandien, Baztango Gaiteroen laguntzaz, Santiago karrika, Ziga plaza, Braulio Iriarte, Giltxaurdi eta Zahar Etxeko ibilbidea eginen dute.

**12:30etan:** Foruen plazan usaiako Mutildantzak.

**14:00etan:** Alkate-Juradoak Anaitasun bazkaria eskainiko du, Balleko herrietako alkateei, Udaleko ordezkariei eta gainerako gonbidatuei.

**18:30etan:** Baztan frontoian, Herri Kirolak. Sarrera doan.

**19:00etan:** Foru plazan, dantzaldia ALBOKA orkestrarekin.

**21:00etan:** Ziga plazan, Iruñeko gaiteroak, txistulariak eta akordeoilariak: muxikoak, gaita, polkak, mazurkak, Larrain-dantza, etab.

**22:00etan:** Mutildantzak Foruen plazan.

**24:00etan:** Foruen plazan LOS CAPORALES Mariatxiak

Egun osoan animazioa karriketan: Elizondoko txistulariak, Baigorriko Gaiteroak, Baztango Gaiteroak, Artaxonako txaranga, eta Gau Erdi fanfarrea.






Gonzalez anaiak
aroztegi metalikoa
Burdina eta aluminioa
F. Joakin Iriarte, 5
Tfnoa: 948 580 337
ELIZONDO

GOIZ-ALDE ostatua
Aukera zabala kaxula, bokata eta pintxotan
Jaime Urrutia, 8 · ELIZONDO · Tel: 948 581 334

INTZA
Ostatua
Jaime Urrutia · ELIZONDO · Tfnoa: 948 580 417

ARKUPE
goxotegi · kafetegia
· Tarta bereziak
· Etxeko izozkiak
· Arkupe txokolatea: kakaotik egindako txokolatea
IRURITA · Tfnoa.: 948 452 021
ELIZONDO · Tfnoa.: 948 452 393

LABORRA
LARUMBE
arkitektoak
Tel: 948 580 122
Faxa: 948 581 888
Santiago, 54-1-ELIZONDO
Tel-Faxa: 948 134 563
Konstituzio Plaza, 3-1
3 eta 4. bulegoak-BURLATA

**Podologoa**
Plantillak egiten dira
Papilomak kentzen dira
✆ 609 116088 · 943 643 093 • ELIZONDO
Pedro Axular, 4-2.esk (Santxotena ondoan)

Pavimentos de Mortero
BIDARRI-IRURITA S.L.
Morterozko Zoladurak
*Pabimentua hiriaren azala da*
*zure hiria zure pabimentua da*
Tel: 618 542 932 · 618 542 592 · 618 542 590
Zalduba Industrialdea, 1 · IRURITA

**Astiz Anaiak**
zurgindegia
zurgintza lanak
orokorrean
*ongi pasa bestak!*
Aldude etorbidea, 5 · ELIZONDO
Tfnoak: 699 325 449 · 948 580 886

**Baztan**
Panifikadora
Edari banatzailea:
Coca-cola, San Miguel
Insalus, Gurutzeta sagardoa
Ardo berexiak...
Berekoetxea Gotzaia, 3 · ELIZONDO
Tfnoa: 948 580 305 · 948 580 138

KONGELATUAK:
Albondigak
Urdaiazpiko,
oilasko, piper
eta arraultze kroketak
**Esarte**
AINTZINETIK PRESTATUTAKO
JANARIAK
Orain Bera, Lesaka, Etxalar eta Doneztebeko
janaridendetan
Jaime Urrutia 35 · ☎ 948 58 01 28
ELIZONDO

**Kars-ak, puzgarriak, apar besta, pailazoak, txokolate jatea, giza-futbolina, dantzaldiak, *gogo*-ak eta Dj-ak, antolatu dituzte haurren egunerako**



## UZTAILAK 26 Asteartea

### *Haurren eguna*

**09:30etan:** Argi Soinuak, Elizondoko txistulari, Elizondoko Txistulari Gazte eta Iruñeko Gaiteroekin.

**11:00etan:** Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa, Baztango Gaiteroekin batera, Santiago karrika, Aldude, Santiago, Mª Azpilkueta, Aita Donosita, Diputazio Etorbidea, Akullegi, Saskaitz Plaza, Datuzelaia, Santiago eta F. J. Iriarte Zahar Etxea ibilbidea eginen dute.

**11:30etatik 13:30etara / 16:30etatik 20:30etara:**
Baztan frontoian, Kars pista, puzgarriak, zezen mekanikoa, apar besta eta pailazoak.

**12:00etatik 13:00etara / 15:00etatik 21:00etara:**
Merkatuko plazan, Giza-Futbolina. (Adin guztiak)

**17:00etan:** Foruen Plazan *Marratxo Ingum*aren ekitaldia. Ondotik txokolatada eta japoniar bonbak.

**18:00etan:** Dantzaldia Foruen plazan iparraldeko HOLAKO taldearen eskutik.

**21:00etan:** Ziga Margolariaren plazan, Iruñeko Gaiteroak, Txis-






tulariak eta akordeoilariak: Muxikoak, gaita, polkak, mazurkak, Larrain-dantza...

**22:00etan:** Foruen Plazan Mutildantzak izanen dira ikusgai.

**23:00etan:** Dantzatoki mugikorra, 8.000 Watteko soinua, iluminazio ikusgarria, Dj-ak, gogo-ak, ke makina, bideo pantailak, musika estilo guztiak eta azkeneko nobedadeak Foruen plazan izanen dira.

Egun osoan karriketako animazioa izanen da, Elizondoko txistulari, Iruñeko Gaitero, Baztango Gaitero eta Los Incansables txarangaren eskutik.
















BAZTAN
altzariak · zurgindegia
- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, Luis Felipe, Napoleon
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak
N-121-B errepidean, 34 km · Zaldubia Industrialdea
Telefonoa: 948 452 324 · IRURITA


Noa
Lurrindegia - Estetika Zentrua
Tfnoa: 948 581 969 - Elizondo
Laser bidezko depilazioa!
nahi ez dituzun ileak
kendu Behin betirako!


Besta zoriontsuak denei!
can


ttipi
TXARTELA-rekin
DESKONTUAK
BERAUTO Bera %5 Errekanbiotan
ZALAIN MOTOR Bera %5 Errekanbiotan
KATEA BIKE Bera %5 Konponketetan
DATUCELAY Elizondo %10 Bateria eta amortiguadoretan
SANSIÑENA Elizondo %15 Olio-aldaketetan
SEMPER Bera %10 Matrikulan
GOIKO Bera %10 Korrete, errebeltze...
AYLA Bera %10 Errebeltzea
MENA Doneztebe %10 Errebeltzea
MENA Elizondo %10 Errebeltzea
ZALDUA Doneztebe %10 Produktuetan
ZALDUA Elizondo %10 Produktuetan
ARRIET Bera %10 ( 30 E tik goiti, eskaera ord. )
EDURNE Bera %5 ( 30 E tik goiti, eskaera ord. )
J.J. PICABEA Doneztebe %10 Galtza-marka batzuetan ez
KANAMELA Doneztebe %10 ( 30 E tik goiti )
KATTALINGORRI Elizondo %10
IPINGI Elizondo %10 (30 E tik goiti)
FANTXIKE Elizondo %10 (30 E tik goiti)
ETXARTE Lesaka %10 bitxietan
ALTZURI Lesaka %5 etxetresnetan
AMAIA Doneztebe %5 Kosmetikan (30 E tik goiti) %10 Erregalo artikuluetan eta kosmetikan. Markaaldietan ez
IPARLA KIROLAK Elizondo %8 (30 E tik goiti)
ZELA KIROLAK Bera %5
AGARA KIROLAK Bera %5 Kirol artikuluetan
MARICRUZ Doneztebe %10 (30 E tik goiti) Elizondo %10 (30 E tik goiti)
DENE Lesaka % 10 Lentzerian
NAFARPRESS Elizondo %10 Liburu eta ikas materialetan Testuliburu eta bideoak ezik
NAIMUR Leitza %10 opari artikuluetan
OSTARGI Bera %10 (30 E tik goiti)
ARGIBEL Elizondo %10 antiojo graduatuetan
Doneztebe %10 antiojo graduatuetan
MENDAUR Doneztebe %5 Zakurrena, katuena...
AIHONE Doneztebe %10 (12 E tik goiti)
KALOTXA Bera %5 (18 E tik goiti)
OSTIZ Doneztebe %10
TXINELKA Lesaka %10
Eskatu zure txartela!
948 635 458
Beti irabazten atera zara


RENAULT
PEDRO GARMENDIA, S.A.
Frantziarako errepidea z/g • ELIZONDO • Tfnoak: 948580431 Fax: 948 580973


BAZTAN · MALERREKA · BORTZIRIETAKO SEAT ZERBITZU OFIZIALA
SEAT
LEON
Mekanika · Elektrizitatea · Gasen Aztertzailea
ITVrako prestakuntza · Ordenagailu bidezko
Direkzio zuzenketa
LEON
DATUCELAY
Tailerrak: ELIZONDOko sarreran Telefonoa: 948 580 225




Goñi
haragitegia
Santiago karrika ☎ 948 580 164
ELIZONDO

ELIZONDO
Santiago, 27
Tel: 948 581 414
Faxa: 948 581 815
"la Caixa"
Besta on batzuk opa dizkizuegu!







**Olaizola IIa, Otxandorena, Bengoetxea, Beloki... goi mailako pilotarien arteko partiduekin gozatzeko aukera paregabea izanen dute pilotazaleek**

## UZTAILAK 27 Asteazkena

### *Pilotaren eguna*

**09:30etan:** Argi Soinuak txistulari eta gaiteroekin: Elizondoko Txistulariak eta Iruñeko Gaiteroak.

**11:00etan:** Erraldoi eta Buruhaundiak, Baztango gaiteroekin, Santiago karrika, Saskaitz plaza, Mendinueta, Jaime Urrutia eta Fco. J. Iriarte Zahar Etxean barna ibiliko dira.

**12:00etan:** Mariano Izeta errebote plazan, Elizondoko Bandaren kontzertua.

**12:00etatik 13:00etara /15:00etatik 21:00etara:** Merkatuko plazan, Giza-Futbolina. (Adin guztiak).

**13:00etan:** Herriak gonbidatutako Fco. Joakin Iriarte Zahar Etxeko adinekoendako bazkaria, Joxe Angelek alaitua.






**16:00etan:** Baztan frontoian, animalien ikuskizuna haurrendako: Poniak, basurdeak eta Oilarren *kontzertua*.

**17:30etan:** Baztango Frontoian, eskuzko pilota partidak, lehen mailako pilotariekin:

DIAZ – ALBIZURI
J. RETEGI – ESKUDERO

OLAIZOLA II - OTXANDORENA
BENGOETXEA VI - BELOKI

**19:30etan** Dantzaldia Foruen Plazan TXIMELETArekin

**21:00etan:** Ziga plazan Iruñeko gaiteroak, txistulariak, eta akordeoilariak: Muxikoak, gaita, polkak, mazurkak, Larrain-dantza...

**22:00etan:** Foruen plazan Mutildantzak.

**24:00etan:** Dantzaldia Foruen plazan TXIMELETArekin

Egun osoan karrikako animazioa: Elizondoko txistulariak, Iruñeko gaiteroak, Baztango gaiteroak, eta Lesakako Txakain txaranga.

ferretería
Quevedo
· Elektrizitatea
· Zerraildegia
· Erremintak
· Joareak
· Haziak...
BONDEX
Procolor

Galarregi
Supermerkatua
Zerbitzu atsegina
Aukera zabala edari eta likoreetan
Santiago, 12 · ELIZONDO · Tfnoa. 948 580 005



LINDUTX-BAZTAN
Lokal komertzialak,
babes ofizialeko etxebizitzak,
eta garaje plazak
ELIZONDON
Braulio Iriarte, 8 behea
ELIZONDO
Tfnoak: 676 306 096 – 676 509 312



HOTEL
SASKAITZ
Besta zoriontsuak
pasa itzazue!
Mª Azpikueta karrika, 10
Tfnoa-Faxa: 948 580 488 - 948 580 615
ELIZONDO



Urrekin egina
Tartak eta pastelak
Etxean egindako izozkia
Gozotegia
Malkorra
Besta onak pasa!
Santiago, 15 - Tel. 948 580 061 - ELIZONDO



FOTO MENA





BAR TXOKO
FOTO MENA ELIZONDO ©




**Adin ezberdinekoei egokituta, ekitaldi eta ikuskizun ezberdin aunitz prestatu dituzte Herriaren Egunerako Elizondon**

## UZTAILAK 28 Ortzeguna

### *Herriaren eguna*

**09:30etan:** Argi Soinuak Elizondoko txistulari eta Iruñeko Gaiteroekin.

**11:00etan:** Erraldoi eta Buruhandiek, Baztango Gaiteroez lagunduta, Santiago karrika, Foruen plaza, Jaime Urrutia, Braulio Iriarte, Giltxaurdi, eta F. Joaquin de Iriarte Zahar Etxean barna ibiliko dira.

**11:30etan:** Baztan frontoian, Kars pista, Puzgarriak, Zezen mekanikoa, Apar besta eta pailazoak. (Doan)

**14:30etan:** Kuarteleko zelaian ZIKIRO-JATEA. Xalbador txaranga eta Incansables txarangarekin.

**16:30etan:** Baztan frontoian, Kars pista, puzgarriak, Zezen mekanikoa, Apar besta eta pailazoak.

**19:30etan:** Foruen plazan dantzaldia MOMPAS orkestrarekin.

**21:00etan:** Ziga Margolariaren plazan Iruñeko Gaiteroak, txistulariak eta akordeoilariak: muxikoak, gaita, polkak, mazurkak, Larraindantza...

**22:00etan:** Mutildantzak Foruen plazan.

**24:00etan:** "Gaixoa ni". Foruen plazatik abiatuko da herriko karrikak kurrituz eta ostatuz-ostatu Incansables txarangarekin.

**01:00etan:** Dantzaldia Foruen plazan MONPAS taldearen eskutik.

Egun osoan animazioa karriketan: Elizondoko Txistulariak, Iruñeko Gaiteroak, Baztango gaiteroak, Xalbador txaranga, Los Incansables txaranga eta Ezpeletako txaranga.


SALDIASko

okindegia
egurrezko labea
Olasoa etxea · Tel: 948 615 046
SALDIAS

Sansiñena garagea
· Tailer mekanikoa
zerbitzu ofiziala
· Kotxeen salmenta eta konponketa
· Engraseak
· Agria, Fiat, New Holland traktoreak
· Erabilitako nekazal tresneria
zerbitzu ofiziala AGRIA
Santiago, 37 · Tfnoa-Faxa: 948 580 406
ELIZONDO

onegin
Herbodietética Ekodenda
ZERBITZUAK:
DIETISTA: Gantzen neurketa, Diabetes, Kolesterolarentzako dietak, Argaltzeko dietak.
NATURISTA: Akupuntura, Homeopatia, Naturopatia, Psikoterapia, etab.
PRODUKTU EKOLOGIKO eta NATURALAK
PRODUKTU ARTISAUAK
Jaime Urrutia, 26, behea • ELIZONDO • 948 581 932

ZUNZARREN
· Artekaritza:
- Aseguruak
- Autoen matrikulazioak
· Bidai agentzia
Amaiur Gaztelua, 2 · Tfnoa: 948 452 293
ELIZONDO

MAÑONEA agentzia
aholkularitza eta aseguruak
Estrella aseguruak
Braulio Iriarte, 9 - ELIZONDO
Tel: 948 581 132

Dia % SUPER-BAZTAN

Santiago, 40 - ELIZONDO - Tel: 948 580 453


Beatriz
LURRINDEGIA
ESTETIKA ZENTRUA
Lurrindegia:
Estetika Zentrua:
Santiago, 53
Tfnoa: 948 580 283
ELIZONDO

Zure publizitatea sartzeko deitu
948 635 458
telefonora

## Txistua, txaranga, dantzak, olerkiak, eta musika izanen dira Hamabi Ordu Eskuaraz elkarteak antolatuta

### UZTAILAK 30 Larunbata

*Hamabi ordu eskuaraz*

**20:00etan:** Elizondoko Foruen plazan, Hamabi Ordu Eskuaraz Elkarteak eta Elizondoko Herriak antolatutako ikuskizunera gonbidatzen zaituztete.

**EGITARAUA:**

Txistua (musika eskolako haurrak)

Ustaritzeko Txaranga

Dantzarien emanaldia. Hiru urtetik goitikoak

Olerkiak

Baztango Ekuatoriar dantza taldea

Kiki Bordatxo musika taldea

**Gora Santioak!**

Pedro
GARMENDIA
Zerbitzu Estazioa

Tfnos.: 948 580 309 · ELIZONDO

- Gasolina eta Gasoila
- Presio bidezko garbiketa
- Garbiketa automatikoa
- Olio eta lubrikatzaile salmenta



Zaldua
Argazkilariak

Ezkontza
erreportajerako
estilo berria
eta diseinu digitala

Elizondo 948 580491
Doneztebe 948 450364

Belardenda eta Dietetika

Natura Etxea

- Sendabelarrak
- Produktu naturalak
- Kosmetika naturala
- Naturopatia kontsulta
- Pisu-terapia
- Zapata naturalak
- Liburuak

Iturri Ederra
☎ 948 580 203
ELIZONDO

Besta onak pasa!!

ZERGALAN
aholkularitza

Prolongación Braulio Iriarte, 8 Bj.
31700 Elizondo
Tfno./fax: 948 58 13 00
e-mail: zerga@telefonica.net

Enpresendako aholkularitza
zerbitzu integrala

- Fiskala
- Kontablea
- Laborala
- Autonomoak
- Enpresa berriak sortzea

autoeskola
OLITELKAR

· **ISO** kalitatearen zigilua lortzen duen Nafarroako lehenengo autoeskola

· Kamioiaren gida baimena ateratzeko ikastaro subentzionatuak

Saskaitz Plaza · Tel: 948 580 077 · **ELIZONDO**
Olite karrika, 34 · Tel: 948 232 956 · **IRUÑA**

**KULTURKARI**
PUBLIZITATEA • ZERBITZUAK

**PUBLIZITATE AGENTZIA**
**Iragarkiak irrati, telebista eta egunkarietan.**

**Publizitate kanpainen antolaketa eta gestioa.**

**DISEINU ETA PUBLIZITATEAN, ZERBITZU INTEGRALA**

Andutzeta 12
31760 ETXALAR
(0034) 948 63 54 58
kulturkari@ttipi-net



ZABORRA

# 5.627 zenbakiari suertatu zaio Kanarietara bi lagunendako bidaia

«Ikasi birziklatzen, zure esku dago» kanpainaren barrenean

ttipi-ttapa

2004ko irailaren 23an «Ikasi Birziklazen, zure esku dago» izeneko sentsibilizazio kanpainari ekin zitzaion Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Bortziirietan. Kanpaina honen barrenean, zonalde guztian martxan jarri zen zerbitzu berri bati buruz informatu zen: etxeko hondakin berezien bilketa. Hondakin berezi hauen artean daude, bertzeak bertze, sukaldeko olioa, pintura produktuak, izotz-kontrakoak, lixibak, esprai-enbaseak, hodi libratzaileak…



ARGAZKIA: EDURNE ZUBIETA

**Baztan, Bertizarana, Bortziriak eta Malerrekako udal eta mankomunitateetako ordezkariak, bidaiaren zozketa egin ondotik.**

Zerbitzu hau zein baldintzetan emanen zen erabiltzaileei informatzeko, etxebizitza guztietan 6.500 egutegi banatu ziren. Horietan, Kanarietara bi lagunendako aste bateko bidaiaren zozketarako zenbaki bat ere azaltzen da. Ekimen honen helburua erabiltzaileek urte guztian egutegia gordetzea zen eta modu horretan birziklapenaren ohitura saritzea.

Ekainaren 30ean arratsaldean Doneztebeen, kanpaina honen lehendabiziko balorazioa egitearekin batera, zozketa ere egin zuten, Baztan, Malerreka, Bertizarana eta Bortziirietako ordezkariek.

Zozketari dagokionez, 5.627 zenbakiari egokitu zaio Kanariaserako bidaia. Dena den, zenbaki honen jabea hilabete baten buruan agertuko ez balitz, erreserban bertze bi zenbaki ere gelditu dira: lehena 4.741a eta gero 3704a.

### LEHEN HIRUHILABETEKO DATUAK

Zerbitzuaren lehenbiziko hiruhilabetekoan bildutako hondakin berezien kopuruei dagokienez, guztira 1.691,20 kilo bildu dira. Gehiena, sukaldeko olioa izan da, 1.188 kilo terdi eta motore olioa 337,75 kilo bildu dira. 40 kilo pintura eta 12 kilo terdi pila ere bildu dira. Horretaz gain, bateriak, aerosolak, fluoreszenteak, bonbillak, garbikariak, CDak, tinta kartutxoak eta bertze tresnak ere bildu dira.



## Saltokietan paper eta kartoia biltzeko kanpaina

ttipi-ttapa

Nafarroako saltokietan paper eta kartoi bilketa selektiboa hobetzeko kanpaina bultzatu du Nafarroako Gobernuaren Ingurumen Departamentuak, Nafarroako hiri-hondakin solidoak kudeatzeko mankomunitateen adostasun eta laguntzarekin. Komunikazio kanpainak bi zati nagusi ditu. Saltzaileek komunikazio-informazio ekintzen berriemanten duen eskutitza eta auto-ebaluazio liburuxka jasoko dute lehenik, eta gero, bisitak eta bilerak eginen dira beraiekin.




LEITZALDEA

# 76 enpresa, saltoki eta erakundek jaso dute Bai Euskarari Ziurtagiria

«Konpromiso prozesua ahalik eta gehien hedatzea» da Kontseiluaren asmoa

**ttipi-ttapa**

*"Gure asmoa konpromiso prozesua ahalik eta gehien hedatzea da"*, horrela azaldu zuen Kontseiluko Idazkari Nagusiak, Xabier Mendigurenek, Bai Euskarari Ziurtagiriaren zeregina Goizueta eta Leitzan uztailaren 1ean egindako ekitaldietan.

Goizueta, Arano, Leitza eta Aresoko 76 enpresa, saltoki eta era guztietako entitatek Bai Euskarari Ziurtagiria jaso dute, 24 Goizuetako Udaletxean izandako ekitaldian eta 52 Leitzan. Banaketa honetan Ziurtagiridunak ez ezik, zenbait herritar ere izan dira.

*"Euskararen normalizazioak ahalegin bat eskatzen du, gainerakoan beti erdara gailenduko zaio"*, adierazi zuen Euskalgintzako Ordezkariak, David Anautek. *"Ahaleginak, ordea, ez da bakarka egiten den gauza. Bai Euskarari Ziurtagiria ekimen edo urrats kolektiboa da"*, gaineratu du, *"lan horretan elkarrekin ari gara denak, ez gara bakarrik ari"*.

*"Udalak euskara erabiltzea ezinbestekoa da herrian euskararen erabilera normalizatzeko. Baina ez da nahikoa, eta hori bezain garrantzitsua da herriko gainerako eragileek ere urratsak egitea"*, aditzera eman dute Leitzako eta Aresoko Alkateek, Patxi Saenzek eta Iñigo Larreak. Goizueta eta Aranoko Alkateek, Imanol Legarretak eta Iñigo Larreak, euskararen erabileraren garrantzia azpimarratu dute: *"Denok erabiltzen dugu euskara eguneroko bizitzan, baina denok dugu zer egina, eta hori bultzatu nahi du Akordioak"*.



### *Kirol merituari domina Jose Mari Razkinentzat*

**Nafarroako Gobernuak kirol merituaren zilarrezko domina eman dio Jose Mari Razkin leitzarrari «*Aurrera Kirol Elkartean 25 urte baino gehiagoz futbolari eskaini dion dedikazioarengatik*». Beste hainbat kirol sustatzailerekin batera, tartean Izko Osasunako presidentea, uztailaren 1ean jaso zuen domina Razkinek.**

## FLASH

### *Musika eskolako matrikulazioa*

2005-06 ikasturtean Aralar musika eskolan matrikula egiteko epea irekia dago, uztaila osoan. Matrikulazio orriak Karrape Irratian eskuratu daitezke eta bertara joan eta izena ematearekin nahikoa da. Edozein adineko jendeak edozein musika tresna jotzen edo abesten ikasi nahi izanez gero, zabalik dago epea.

### *Plazako pilota txapelketa*

Arkaitz Bengoetxea eta Aimar Sagastibeltzak irabazi dute Plazako XIII. eskuz binakako txapelketa, uztailaren 2ko finalean Igor Aldaia eta Unai Olanori 22-13 irabazi ondotik.

### *Euskal Herrian Euskaraz taldearen aurkezpena*

Euskal Herrian Euskaraz talde sortu berriaren aurkezpena egin zen ekainaren 29an Aurrera elkartean. Bertan EHE taldeak 25 urte hauetan izan duen bilakaera eta Leitzan euskarak duen egoera aztertu ziren. Euskalgintzako eta kulturgintzako eragile guztiak eta herritarrak gonbidatuak zeuden ekitaldira.

GAZTANDEGIA
Lizun
Etxeko Ardi Gazta

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa • saneamendua • gasa
✆ 948 510086 / 510156 fax: 948 510856 LEITZA

BURKAITZEA
ostatu erretegia

Alberto RETEGI
Altzate, 17 BERA ✆ 948 630 763
abokatua

Ark b arkitektura bulegoa
Celia Lana Ranz
Huarte Goitzai 7 - 31880 Leitza - 645006478 tel
Eraikuntza Hirigintza Udal-aholkularitza

GOIZUETA

# Euskal Herriko birramon eta amonik gazteenak?

## Malen Perurena birramondu dute 60 urterekin eta Arantxa alaba amondu 38rekin



Argazkia: Mattxin APEZETXEA

**Zeinek esanen luke birramon eta amon direla argazki honetakoak?.Ezkerretik hasita Lorena birbilobarekin, Nagore ama, Arantxa amona eta Malen birramona.**

**Esteban AROTZENA**

Aiarran jaio, Espidera ezkondu eta gaur egun Antoka baserri ederrean bizi den Malen Perurenak 60 urte bete berriak ditu, eta ekainaren 8az geroztik birramona da, egun horretan jaio baitzen Lorena Huitzi Eskudero bere iloba Nagoreren alaba.

Malenek 21 urte zituela jaio zen bere alaba Arantxa, eta honek 17 urterekin izan zuen Nagore. Honen anaia da, Arantxaren semea beraz, Mikel Eskudero pilotari gazte ezaguna ere. Orain Nagorek 21 urterekin Lorena ekarri du mundura, eta horrela, hain gazte eta sasoiko dagoen Malen birramontzeaz gain, 38 urteko Arantxa amona egin da.

Euskal Herriko birramon eta amonik gazteenak Malen eta Arantxa direla esateko daturik ez daukagu esku artean, baina ez dira horretatik urruti ibiliko seguru aski. Malen eta Arantxa oso pozik daude behintzat Lorena jaioberriak eman dien "titulu" horrekin.

### *Musika Eskola*

Musika atsegin duten goizuetar guztiei deia luzatu die Udal Musika Eskolak hurrengo ikasturterako bertan matrikula daitezen.

Kordiona, kitarra, pianoa, trikitixa, txistua, zeharkako xirula perkusioa eta saxofoia jotzen ikasteko aukera eskaintzen du Musika Eskolak, baita kantatzen ikastekoa ere. Izena emateko epea zabalik egonen da hil honen bukaera arte, eta horretarako Herriko Etxera joan beharko da edo 948504489 telefono zenbakira deitu. Musikarako edadea oztopo ez dela azpimarratzen du eskolak bere iragarkian.

ARESO

# Langabezian zeuden herriko bi gazte lanean arituko dira udan

## 560 kiloko bigarren jardunaldia jokatu zen herrian

**Juana Mari SAIZAR**

Udako hiru hilabetez langabezian dauden 2 herriko gazte herri lanetan ariko dira, udal langileari laguntzen. Ezkiño-Nietoenea etxera doan bidea zabalduko dute eta bestalde Herriko Etxeko ganbara txukundu eta garbitu.

### *Errogatiba*

Eguraldi lehorra eta beroa aspalditxoan dugu, honek uraren eskasia eta lurraren egarria nabarmena dira, beraz, uztailaren 5ean errogatibak egin ziren elizan ura eskatzeko.

### *Migel Aingeruaren bisita*

Migel Aingeruaren bisita atzeratzen ari da. Baina ohitura denez aurtengoan ezin izan da igandean etorri eta uztailaren 16an, larunbatean, arratsaldeko 6etan herri sarreran itxarongo zaio.

### *Sokatira*

Uztailaren 3an, Euskal Herriko lur gaineko sokatira txapelketako bigarren jardunaldia 560 kilotan jokatu zuten Areson, eta herriko taldea nahikoa justu ibili zen. Alde batetik tiralari kopurua ez da handia eta bestalde bakarren batek ezin izan zuen parte hartu. Orain 9 puntu ditu Gaztedi-Ak bezelaxe, eta beste aukera bat daukate 30ean Laukizen.



Argazkia: Jaione OLAZABAL

**San Pedro jaiak ospatu dira uztailaren 2 eta 3an. Mezan Joseba gaztea gogoan izan zuten lagunek eta bere alde otoitz egin zen.**



BAZTAN

# 42. Baztandarren Biltzarra eginen da uztailaren 17an

## Bazkarirako txartelak ezin izanen dira telefonoz eskatu

**ttipi-ttapa**

Igande honetan, uztailaren 17an, eginen da Baztandarren Biltzarraren 42. edizioa. Egun handirako eta aste honetarako prestatutako ekitaldien berri eman zuten prentsaurrekoan ekainaren 29an Mikel Sobrino, Maider Nabarro eta Jexux Bailonek. Honela, aste honetan lehiaketara aurkeztutako 29 kartelekin erakusketa zabalik dago Arizkunenea Kultur Etxean. Aurtengo irabazlea, Totu Iturzaeta elizondarraren «Tarrapataka» izan da.



ARGAZKIA: ONDIKOL

**Mikel Sobrino, Maider Nabarro eta Jexux Bailon, Baztandarren Biltzarraren aurkezpen ekitaldian.**

Asteburuari dagokionez, larunbatean, karrika animazioa izanen da Incansables txarangarekin eta dantzaldia Lalotz taldearekin. Baina igandea izanen da egun handia. Urtero bezala, eskualdeko eskulangileen lanak ikusgai izanen dira eta eguerdian orga desfilea eginen da Elizondoko karriketan barna. Ondotik, bazkaria izanen da Merkatu plazan. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, *«bazkalondoan sorpresa haundi bat izanen da»*. Aurtengoan, berrikuntza gisara, ezin izanen da bazkarirako txartelak telefono bidez eskatu. Bazkarra joan nahi dutenek txartelak 16 euroren truke erosi beharko dituzte Baztandarren Biltzarra elkartearen egoitzan uztailaren 13, 14 eta 15ean, 18:00etatik 20:00etara eta larunbatean, uztailaren 16an, 10:30etatik 13:00etara eta 15:30etatik 18:00etara. Txartelak soberan gelditzen badira, igandean berean saltzera jarriko dira 13:30etatik aitzinera. Baztandarren Biltzarrak bazkaria zerbitzatzeko eta ostatuetarako, aparkalekuetarako eta desfilerako laguntzaileak behar dituela jakinarazi du. Bestaren aurrekontua 72.120 eurokoa da.

Musika Lalotz taldeak jarriko du arratsaldean plazan.



PERTSONAIA

Fernando MIKELARENA

## Baztango dokumentazioa biltzeko beka jaso du

Baztango Udalak eta Eusko Ikaskuntzak sinatuta duten lankidetza hitzarmenaren bidez, Fernando Mikelarena Historian doktore eta Zaragozako Unibertsitateko Biblioteknonomia eta Dokumentazio irakasle titular denari beka bat eman diote, Baztani buruz dagoen dokumentazio guztia aurkitu eta balora dezan. Berako ikerlariak argitaratutako edo argitaratu gabeko material bibliografikoa, artxiboetako dokumentazioa eta bertze zenbait euskarri aztertuko ditu. Ikerketa honen lehenengo faseari uztailean ekinen zaio.





Pierresenea
OSTATU · JATETXEA
· Jaki tipikoak
· Etxeko giroa


ARMUA
Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. km
948 599 131


SOULE
Hileta artea
Tel: 948 453444 · 629 659583
ARIZKUN


Eskisaroi
jatetxea

BAZTAN

# Iruritabarrengo bidean barrena eginen da Aldudeko errepidea

## Aukera honek Junta Generalaren babesa hartu zuen

ttipi-ttapa

Beartzun eta Aldude arteko errepide berria Iruritabarrengo bidea hobetuz eta luzatuz eginen da. Aukera hau begi onez ikusi zuen Baztango Junta Generalak ekainaren 27an egindako bilkuran. Aldeko 23 botu hartu zituen trazatu honek, aurkako 3, 2 abstentzio eta baliogabeko botu bat. Bozkatu aitzinetik, Belaun Aldea Bizirik taldeko bi kidek solasteko aukera izan zuten eta proiektuaren aurka egoteko arrazoiak jakinarazi zituzten.



Argazkia: ORDOKI

**Junta Generaleko kideek Belaun aldera joan ziren maiatzaren 21ean, bidea nondik joanen litzatekeen ikusi eta aztertzeko.**

Onartutako proiektuaren arabera, gaur egun Isastiko bordatik Iruritabarrengo borda aldera doaien bidean 1,3 kilometro moldatuko dira eta bertze 2,6 kilometro berri eginen dira. Aurrekontua 550.000 eurokoa da eta %90a Nafarroako Gobernuak eta Europako Interreg programak ordainduko dute.

Junta Generalaren onarpena izan ondotik, hurrengo urratsa proiektua idaztea izanen da. Lan hau Guallart enpresak eginen du. Gero, dirulaguntza ez galtzekotan, urrirako hasi beharko lirateke lanak.

Onartutako trazatua bertze lau aukeren artean hobetsi zuen Junta Generalak maiatzaren 19ko ez-ohiko bilkuraren eta maiatzaren 21ean bidea eginen den lekuan egindako ikustaldiaren ondotik. Onartutako aukera honen aldeko 32 sinadura ere bildu dituzte Beartzungo bizilagunek. Elizondoko Iturri-Ederrarako ur-hartzea ere aurrikusia dago proiektu honetan. Florentino Goñi, Baztango Udaleko herrilan zinegotziaren ustez, *«iturria garbitzeko ere ongi etorriko zaigu bide berria. Abeltzainek aziendak Aldude aldera eramateko probexten ahalko dute eta handik Elizondora erosketak egitera ere erraxago etorriko dira».*

FLASH

### Egur loteak

Aitzineko urteotan egin ohi den bezala, Nafarroako Gobernuko Mendi Zerbitzuari etxerako egur loteak prestatzeko beharrezkoak diren arbolak markatzeko eskaera egin zion Baztango Batzar Nagusiak. Egur lotea Baztanen erroldatuak dauden biztanleei soilik emanen zaie 6 euroren truke. Aurten, aipatutako egur loteen eskaera gauzatzeko epea uztailaren 1etik abuztuaren 31ra izanen da. Egur lotearen eskaera Udaletxeko bulegoetan eginen da eta familia bakoitzak gehienez lote bat eskatzen ahalko du.

### Elizondoko Santiago karrika uztailaren 14an irekiko da

Elizondoko Santiago karrikako zeharbide berritua ortzegun honetan, uztailaren 14an irekiko zaio berriz ere trafikoari. 12.00etan hasiko den inaugurazio ekitaldira etortzekoak dira Miguel Sanz Nafarroako Gobernuko presidentea eta Alvaro Miranda herrilan kontseilaria. Iazko azaroaren 29an itxi zen karrika, sare ezberdinak sartu, zolaberritu eta espaloiak egiteko. Mariezkurrena enpresak egin ditu lanak.






AZKAIN

# Gai kalapitatsuak aztertu zituen Herriko Kontseiluak ekainaren 15ean

## Herriko Etxeko zazpi langile euskalduntzen aritu dira ikasturte huntan

**Angela eta Xamo**

Herriko kontseilua aski gogorra izan da ekainaren 15ean. Azkaine Berritik 9 ziren, 1 Idekiko listatik, eta 17 gehiengokotik, jakinez lau gehiengokotik baztertu direla. Azkaine Berrik hitza hartu du kontseiluaren hastapenean erranez ez zela ados auzapeza eta bere taldearen egiteko maneran, gardentasun eskasa aipatuz. Eza eman dute boto guztietan. Trinketeko salmenta gai kalapitatsuena izan da. Azkaine Berrik salatu du lan bat eraman zuela iaz eta auzapezak ez duela kontutan hartu. Azkaine Berriko hautetsiak batzordeetan ez zirela gehiago agertzen erantzun du auzapezak. Trinketaren gaiari buruz, auzapezaren listak proposatzen zuen trinketa, ostatua eta sukaldea berritzea, kudeatzaile batek hartzeko helburuarekin. Hoteleko gelak gizarte batek konpontzen du bizileku sozialak egiteko. Ez direnez ados-tu, ez bozkatua izan da. Xurrio frontoina Herriko Etxeari saltzea proposatua izan da, bainan hor ere ez bozkatua izan da. Bertze gaietan, lan postu sasoinkari, diru laguntza (elkartoei, euskal kulturari...), Azkaine Berrik dena ez bozkatzen zuenez, gehiengoko listatik baztertu diren lauek balantza egin dute eta bai bozkatua izan da. Auzapezak Ribalka anderea, Azkaine Berriko kide bat, deitu du, ikusteko elgar lan egiten ahalko duten.



Duela guti, Euskal Gizarte Erakundeen Kontseiluak eta Euskal Konfederazioak Azkainen Bai Euskarari Ziurtagirien ekitaldia egin zuten. Bertan, 42 saltegi, ostatu, lantegi, elkarte eta osasun kontsulta omendu zituzten.

### *Euskaraz Herriko Etxean*

Herriko Etxeak, AEKrekin aliatuz, euskarazko kurtsoak propasatu zituen aurten Herriko Etxeko langile batzuei. Heien helburua zen administrazioetan euskara erabiltzea. Heien lana egokituz, zazpi langilek parte hartu dute proiektuan: Martia turismo bulegotik, Herve udaltzaintza, Marianne eta Bruno idazkariak, Pantxo eta Joelle jolas zentrotik. Hiru mailetan banatu ziren: ofizial itzulpena, adierazpen lana eta hizkuntza hobetu. Urtea ongi bukatu da, helduden urtean berriz hasteko helburuarekin.

FLASH

### *Errebotea*

Azkainek erreboteko finala galdu du Uztaritzeren kontra 3-13, ekainaren 19an Sarako plazan. "Ligue du Pays Basque"eko txapelketan baztertuak izan dira, bainan erdi finaletan ailegatu direnez Frantziako txapelketan aritzen ahalko dira laurden finalean hasiz.

### *Xiba*

Azkaindar gazte batzuk Xiba lehiaketan (euskal indar jokoak) parte hartu zuten maiatzaren 7an Sarako plazan. Kalifikatuak izan ziren Euskal Herriko finalean haritzeko Oiartzunen, ekainaren 18an. Orotara 16garren ailegatu dira, eta ipar Euskal Herriko lehenak.

### *Aratz*

Aratzen aldeko bazkaria antolatzen du Orduan elkarteak, heldu den uztailaren 14an, Kiroletan. Eguna hori bote luze partida batekin hasiko da 11:30etan. Gero, nahi dutenak bazkari baten inguruan biltzen ahalko dira (izenak eman behar dira aitzinetik 15 euro). 17etan, *Le petit théâtre de pain* elkarteak "Mesclagne" antzerkia proposatuko digute. Tapia Leturia taldea etorriko da egun eder hori bukatzerat.






SENPERE

# 50.000 tona hondarkin bilduko dituzte urte guziz Zaluaga Bi hondarkindegian

## Urtero bezala, sokorri ikastaldia prestatu dute herriko su-hiltzaileek

Franck DOLOSOR

Heldu diren hogoi urteetan, miliun bat tona hondarkin bilduko dituzte berriki estrenatu den Zaluaga Bi hondarkindegian. Urte guziz, 50.000 tona zikin biltzen ahalko dira. Herriko eta eskualdeko hautetsiek inauguratu duten gune berri hunek 6,3 miliun euroko gastua sortu du. Bizi Garbia sindikatuak, Uraren agentziak, Paueko Kontseilu Nagusiak eta Bordeleko Lurralde Kontseiluak pagatu dituzte gastuak. Gune berri huni esker, hondarkinen biltzearen arazoa hobetuko omen da. 7 hektaretako eremu hortan, gehiago birzikla ezin daitezken hondarkinak bilduko dituzte. Biltzea eta erretzearen arteko aterabidea eskaintzen du Zaluaga Bik. Hondarkindegi berriak Bizi Garbia sindikatuetako herrietako azken zikinak bilduko ditu (Senpere, Ahetze, Ainhoa, Arbona, Arrangoitze, Basusarri, Bidarte, Donibane-Lohizune eta Sara). Zugarramurdiko eta Urdazubiko, eta Bilta Garbia (Baionaldea) sindikatuak osatzen duten herrietako hondarkinak ere Senperen bilduko dira.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

**Olhan bizi diren Alzuaga jaun andereek urrezko eztelak ospatu dituzte berriki. Zorionak.**

### *Zikinen biltzea*

2.500 m²ko eta lau metra goratasuneko kutxetan eginen da. Meta horiek sortuko dituzten biogasak eta likidoak tratatuko dituzte hor berean barne zirkuitu baten bidez.

### *Sokorri ikastaldia*

Sokorri ikastaldia apailatu dute aurten ere Senpereko su hiltzaileek. Ikastaroa su hiltzaileen egoitzan eginen da uztailaren 19tik goiti. Uztailaren 21ean, 26an eta 28an eta agorrilaren 2an ikasgai gehiago eskainiko dute, beti ere 19:00etan. Izenak emateko 05 59 54 53 50 zenbakirat deitu behar da. Ikastaldian parte hartu nahi duenak 50 euro pagatu behar ditu.

UDALBIDE

# Hautetsiak Halty bentan bildu ziren

Xan HARRIAGUE

Udalbideko hautetsiak Errota Xaharreko Borda bentan (Halty) bildu ziren uztailaren 1ean, orain arte egin den lana baloratzeko eta harremanak azkartzeko dirua ematen eta hartzen dutenen artean. Lokuhori ez zuten nola nahika hautatu, Baztango lurretan bada ere, Sara eta Zugarramurdi tartean kokatzen da, halaber Nafarroa eta Lapurdi tartean edo batzuentzat Frantzia eta Espainia tartean. Udalbidek dituen helburuak segituz, eta orain arte egin duten bezala, konpromisoa hartu zuten euskara, kultura eta lurralde ezberdinen arteko harremanak bultzatzen dituzten elkarteak laguntzeko. Denbora berean, egoera latza, eskubideen urraketa, euskalduntasunaren ezeztatzea salatu zuten eta orain inoiz baino gehiago lan egiteko beharra nabarmendu. Ekitaldi politikoaren ondotik, zikiro jatea izan zuten.






## ZUGARRAMURDI-URDAZUBI



Argazkia: Koro

**Ikasturtean ikasitako dantza eta jokuak egin zituzten eskolako neska-mutikoek pilotalekuan.**

# Ikasturte bukaerako besta egin zuten haurrek

**Margari eta Koro**

Ekainaren 24an Azketa pilotalekuan ikasturte bukaerako besta ospatu zuten bi herrietako haurrek. Ikasturtean ikasiak zituzten dantzak guraso eta ikusleen aitzinean dantzatu zituzten, ondotik jokoak antolatuak ziren, eta finitzeko berendu bat egin zuten.

Eskolako gai hunekin lotuta, heldu den urterako ikasleen kopurua handitu dela erran behar da, eta hori gure herri txiki hauentzako notizi ona da. Aurten 5 ikaslek finitu dituzten hemen ikasketak, bainan 8 berri sartuko dira (3 urteko bortz, 4 urteko bat, 5. mailara bertze bat, eta DBH 1 era bertze bat).

### *Bardenas Extreme*

Argetasen egiten den bizikleta martxa gogor batean partu hartu zuten gure herrietako bortz gaztek gan den ekainaren 26ean.

Martxa hunek *Bardenas Extreme* du izena eta 111 kilometro kurritzen ditu batez ere Bardeetako basamortuetan barrena. Aurten 1.500 txirindularik parte hartu zuten, eta hörien artean Iñako, Argitxu, Gontxu, Sarratea eta Noeltxo genituen. Gainera aipatzekoa da Argitxuk san bat lortu zuela: parte hartzen zuen neska gaztearena. Zorionak Argitxu!... eta bertze laueri ere parte hartzeagatik.

### *Akelarre gaupasa*

Ongi gan zen aurtengo akelarre gaupasa. Beti bezain jendetsu eta eguraldi ezin hobearekin. Zerbaite bitxikeria aipatzekotan, azkekeneko hilabete hauetan biluzik ibiltzeko (arroparik gabe) egiten ari diren reibindikazionea gure lezeetaraino ailegatu dela izanen zen: jauntzita sandaliak eta poltsa bakarrik zeraman gizon bat ikusi baitzen. Batzuk diote prentsan agertu izan den Iruñeko nudista zela, bainan hori ezin dugu ziurtatu, Ttipi-Ttapako berriemailelak berandu ailegatu baitziren.

## SARA

# Ikastolako besta eginen da larunbat huntan

## Familia haundienen amak saritu zituen Herriko Etxeak

**Laetitia, Sandrine eta Krispin**

Urtero bezala, sarako ikastolak bere besta antolatzen du plazan egitarau on batekin. Eguna hasiko da goizeko 10etan esku huska pilota partida batekin, segituko da 11:30etan ikastolako haurren eta burasoen kantaldi batekin. Ondotik zintzur bustitzea eginen da eguerditan eta bazkaria izanen da txartelak salgai dira, 15 eurotan helduentzat eta 5 eurotan haurrentzat. Herriko Etxeko edantegian uztailaren 15a arte. Arratsalde osoan puzgarriekin jokoak izanen dira. Segitzeko, seietan txanmagoa, magia ikusgarria ikusten ahalko da urririk. 19etatik goiti talo eta xingar jateko aukera izanen da eta dantzaldia izanen da Ebatsik musika taldearekin.

### *Ikastolaren ateraldia*

3 egunez, ekainaren 29tik uztailaren 1 arte, ikastolako haurrek ateraldia egin dute Aldudeko inguruetara. Egun horietan, haundienak eskaladaz, ibilaldietaz gozatu dira eta ttipienak trein ttikian ibili dira, baserri batera joan dira. Egun goxo batzu pasa dituzte denak pozik ibili dira.

### *Udako animazioak*

Udan animazioa desberdinak izaten dira Sarako plazan. Hala nola uztailaren 17an egun guztian azoka izanen da, uztailaren 23an Zazpiak Bat dantza elkarteak bere udako ospakizun nagusia antolatuko du eta Sai Berri sarako musika taldeak joko du elizan uztailaren 27an, arratseko 21:30etan.

### *Euskal presoak etxerat*

Uda hor dugula eta, jakinarazten dizuegu euskal presoen aldeko agerraldiak eginen direla 15 egunez, hitzordua plazan ortzilaretan arratseko 7etan. Hurrengoa uztailaren 22an eginen da.



Argazkia: Xan [illegible]

### *Familia handienen amak sarituak*

**Ekainaren 24an, Herriko Etxean, bost familia handiko amak sariztatuak izan dira. Hain zuzen ere, Perugorria Geneviève (10 haur), Leizagoyen Maria del Carmen (9 haur), Goyetche Juanita (8 haur), Etcheverry Juanita (7 haur), Oronoz Lili (7 haur). Saria izan ondoren, zintzur bustitzea izan da.**

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
Maixan eta Veronique
SARA • Tel. 0559542519



# EZKONTZAK

**Alfontxo Apeztegia Goienetxe** eta **Laura Martin Pery**, Zugarramurdi eta Tuterakoa, uztailaren 9an.

**Joseba Iturralde Arotzamena** eta **Lourdes Intza Lekuona**, Berakoa eta Lesakakoa, uztailaren 2an.

**Koldo Uribeetxebarria Almandoz** eta **Nerea Iturriria Meoki**, Erratzukoak, ekainaren 29an.

**Joseba Pereira Latasa** eta **Maider Legorburu Dorronsoro**, Bera eta Irungoa, ekainaren 25ean.

**Iñigo Olaregi Urritza** eta **Alicia Sagaseta Irigoien**, Lantz eta Narbartekoa, ekainaren 18an.

**Iñaki Mariezkurrena Erasun** eta **Jaione Alduntzin Estanga**, Leitzakoak, ekainaren 4an.

**Jose Ramon Amundarain Jauregi** eta **Nekane Garrido Sagastibeltza**, Bedaio eta Leitzakoa, ekainaren 11n.



# SORTZEAK

**Josu Zubieta Eneterreaga**, Lesakakoa, ekainaren 18an.

**Iker Agirretxe Bikondoa**, Lesakakoa, uztailaren 1ean.

**Jokin Arotzena Illarregi**, Doneztebekoa, maiatzaren 23an.

**Maria Maider Ilie**, Doneztebekoa, ekainaren 21ean.

**Uxue Rekarte Iturriria**, Erratzukoa, ekainaren 19an.

**Martxel Urrutia Eseberri**, Elizondokoa, ekainaren 19an.

**Mattin Organbide Telletxea**, Elizondokoa, ekainaren 24an.

**Alex Iriarte Arrieta**, Arizkungoa, ekainaren 27an.

**Antton Iparragirre Iturzaeta**, Elizondokoa, uztailaren 2an.

**Ganix Del Puerto Goiburu**, Berakoa, ekainaren 16an.

**Andde Maritorena Tapia**, Berakoa, ekainaren 19an.

**Naiara Aranberri Zubiri**, Leitzakoa, ekainaren 21ean.

**Peio Battit Lekuona**, Sarakoa, ekainaren 22an.



# HERIOTZAK

**Francisco Ezkurra Erbiti**, Urrozkoa, ekainaren 23an, 89 urte.

**Patxiku Juanikorena Mutuberria**, Zubietakoa, ekainaren 24an, 92 urte.

**Maria Teresa Etxandi Zarranz**, Oieregikoa, ekainaren 25ean, 66 urte.

**Agustina Zubiria Apeztegia**, Lesakakoa, ekainaren 26an, 72 urte.

**Guillermo Agara Maritorena**, Lesakakoa, ekainaren 27an, 88 urte.

**Iluminada Arretxea Ibarra**, Narbartekoa, ekainaren 28an, 85 urte.

**Cecilio Garate Urrutia**, Elizondokoa, ekainaren 29an, 61 urte.

**Pedro Urrutia Bikondoa**, Iruritakoa, uztailaren 2an, 90 urte.

**Rosario Etxeberria Irigoien**, Erratzukoa, uztailaren 3an, 92 urte.

**Popol Ithurria Perry**, Zugarramurdikoa, ekainaren 23an, 62 urte.

**Laure Errandonea**, Sarakoa, ekainaren 28an.

**Serge Fautray**, Sarakoa, ekainaren 28an.

**Monique Albistur**, Sarakoa, uztailaren 3an, 55 urte.

---



**Joseba**

**ETXEBERRIA AGERREBERE**

*Gurekin egon zaren*
*urte laburretan*
*nor zinen erakutsi*
*zinuen benetan*
*beti aurrena zinen*
*edozein lanetan*
*nahiz agurtu zaitugun*
*negar malkoetan*
*beti egongo zara*
*gure bihotzetan.*

Arraiozen, 2005eko ekainean

---



**Imanol ZUBIETA IRIZAR**

**I. URTEURRENA**

2005eko uztailaren 7an

*Nahiz eta urrun egon*
*zure ondoan ikasi eta bizitakoa*
*ez dugu sekula ahaztuko.*

**IKASTOLAKO**
**ZURE IKASKIDE ETA LAGUNAK**

---




**Gure saminarekin bat egin duzuen eta bere aldeko elizkizunetan parte hartu duzuen guztiei, MILA ESKER**

**ZURE FAMILIA**

ATLETISMOA

# Imanol Cruz donostiarra garaile Doneztebeko XXVII. krosean

## Ehun eta hogei korrikalarik parte hartu zuten ekainaren 26ko proban

A.A.

Ekainaren 26an egin zen Doneztoben Erreka elkarteak hogeita zazpigarren urtez antolatutako herri laisterketa. Guztira 120 korrikalari aritu ziren kategoria ezberdinetan eta gainera, eskualdeko eta batez ere Doneztebeko jende aunitzek hartu zuen parte, laisterketaren alde herrikoia indartuz.

Proba nagusian, gizonezkoen senior mailan, Donostiako Avia taldeko Imanol Cruz Mateos nagusitu zen (24' 40"). Bigarren postua, Hiruherriko Alberto Olague iruñarrarentzat izan zen (24' 43") eta honen taldekide batek, Fernando Etxegarai beratarrak, osatu zuen podiuma (24' 51"). Laugarren postua Patxi Orofinok eskuratu zuen (24'52"), gisa honetara, beterano mailako lehen postua ere eskuratuz. Bosgarren postua, Hiruherri taldeko Rafa Maritxalar lesakarrarentzat izan zen (25' 02").

Herrikoen artean, Santi San Miguel eta Mayi Ruiz elkarrekin sartu ziren (28' 56") eta hirugarren Xixo Larraza izan zen (29' 18").

Emakumeen artean, Rosi Talavera izan zen azkarrena (13' 57"). Honela, beterano mailako garaipena ere eskuratu zuen. Bigarren postua, Beste Iruña taldeko Maika Ariztegi iturendarrak eskuratu zuen (14' 31") eta hirugarren Rosa Orofino izan zen, ibilbidea 15 minutu juxtuan bete ondotik. Maria Teletxea eta Leire Uterga doneztebarrak seigarren eta zazpigarren izan ziren.

Ttikien kategorietan ere partehartze handia izan zen. Maila berezian 44 neska-mutikoek hartu zuten parte eta guzietan azkarrena Julen Inda izan zen.

Aurrebenjaminetan, Mikel Retegi doneztebarra eta Iruñeko Irati Beriain izan ziren azkarrenak.

Benjaminetan, Idiazabalgo Iosu Aranburu eta Maialen Oiarzun irundarra izan ziren garaile.

Alebinetan, Ion Sansirenea irundarra eta Ane Mutuberria doneztebarra izan ziren irabazle eta infantiletan, Maria Estanga doneztebarra.






Argazkia: TELLETXEA

**Proba nagusiko irteera eta podiuma. Kategoria ezberdinetan 120 korrikalarik parte hartu zuten Doneztebeko XXVII. Herri Krosean.**

PILOTA

# Laxoa txapelketa final laurdenetan sartu da

Lehendabiziko fasea akitu ondotik, Baztan-Errekako XXVI. laxoa txapelketa finalaurrekoetan sartua da. Hasierako ligaxka horretan, lehenbiziko multzoan Jorge Azkarate, Andres Elizaintzin, Igor Urrutia eta Iñaki Etxandik osatutako Irurita A taldea nagusitu zen eta bere ondotik, Oitz A, Arraioz A, Irurita C, Arraioz B eta Doneztebe D sailkatu ziren. Bigarren multzo buru Felipe Ganboa, Luis Migel Apezetxea, Jose Mari Antzizar eta Patxiku Ganboak osatutako Doneztebe A izan zen, Irurita B, Oitz B, Doneztebe B, Doneztebe C eta Hondarribiaren aitzinetik. Gipuzkoarrek lehen parte hartzea zuten eta partidaz partida pixkanaka hobetzen joan dira.

Multzo bakoitzeko lau lehendabizikoek jokatzen ari dira final laurdenak: Irurita A, Doneztebe Bren kontra; Oitz A, Oitz Bren kontra; Arraioz A, Irurita Bren kontra eta Irurita C, Doneztebe Aren kontra. Uztailaren 3an, 10ean edo 17an jokatzekoak dira joan eta etorriko partidak. Irabazleek uztailaren 24, 25 edo 31n jokatuko dituzte finalaurreko partidak eta final handia abuztuaren 7an jokatuko da Doneztebeko plazan.

## HERRI KIROLA

# Bigarren mailako aizkolari txapelketako finalistak erabakiak

### Jon Rekondo gazte leitzarra izan zen onena Orkoiengo kanporaketa saioan

A.A.

Ekainaren 25ean jokatu zen Orkoienen Nafarroako bigarren mailako aizkolari txapelketako kanporaketa. Kanporaketako hamar aizkolariak hiru txandetan banatuta aritu ziren: lehenengo txandan Xanti Olano leitzarra, Gerendiaingo Esteban Pikabea eta Beintza-Labaiengo Jon Telletxea aritu ziren; bigarren txandan Beintza-Labaiengo Jesus Etxeberria, Altsasuko David Amillano eta Luis Mari Belarra doneztebarra eta hirugarren txandan, Jon Rekondo leitzarra, Juan Telletxea doneztebarra, Altsasuko Eneko Larrion eta Beintza-Labaiengo Jose Luis Telletxea. Egin beharreko lana, bi kanaerdiko eta 60 ontzako enborra moztea zen.

Kanporaketa honetako bortz lehendabiziko sailkatuek izanen dute oraindik data zehaztu gabe duen finalean lehiatzeko aukera. Orkoienen denborarik onena Jon Rekondo leitzarrak egin zuen, 8 minutu eta 17 segundu. Bigarrena Luis Mari Belarra doneztebarra izan zen, 9 minutu eta 6 segunduko denborarekin, hirugarrena Beintza-Labaiengo Jon telletxea, 9 minutu eta 8 segunduko denborarekin, laugarrena Beintza-Labaiengo Jesus Etxeberria, 9 minutu eta 41 segunduko denborarekin eta bosgarrena Altsasuko David Amillano, 10 minutu eta 4 segunduko denborarekin. Bortz hauek izanen dira, beraz, finalean arituko direnak. Seigarren postua Juan Telletxea doneztebarrarentzat izan zen, 10 minutu eta 28 segundutan akitu baitzuen bere lana, zazpigarren Beintza-Labaiengo Jose Luis Telletxea, 10 minutu eta 39 segundutan, zortzigarren Xanti Olano leitzarra, 11 minutu eta 58 segundu, bederatzigarren Eneko Larrion altsasuarra, 12 minutu eta 54 segundutan eta hamargarren Gerendiaingo Esteban Pikabea, 14 minutu eta 20 segundutan.



Artxibokoa

**2001ean gazte mailako txapelketan plazaratu zenetik aizkoran asko hazi da Jon Rekondo leitzarra.**

| | 54 | 60 | 54 |
|---|---|---|---|
| **1. Jon REKONDO** | **1'44"** | **4'53"** | **8'17"16** |
| 2. Luis Mari BELARRA | 1'51" | 5'30" | 9'06"87 |
| 3. Jon TELLETXEA | 2'33" | 6'01" | 9'09"90 |
| 4. Jesus ETXEBERRIA | 3'03" | 6'05" | 9'41"13 |
| 5. David AMILLANO | 2'31" | 6'22" | 10'04"51 |
| 6. Juan TELLETXEA | 1'56" | 6'20" | 10'28"89 |
| 7. Jose Luis TELLETXEA | 3'22" | 7'20" | 10'39"00 |
| 8. Santiago OLANO | 2'16" | 7'37" | 11'58"49 |
| 9. Eneko LARRION | 3'12" | 8'33" | 12'54"65 |
| 10. Esteban PIKABEA | 3'11" | 8'56" | 14'20"01 |

# Iparraldeko Joku Torneoko txapelak banatu ziren Orbaitzetan uztailaren 2an

### Uztailaren 31n Beran jokatuko den koxkor biltze txapelketako bortz finalistak ere zehaztu ziren

ttipi-ttapa

Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatutako Iparraldeko Joku Torneoaren hirugarren eta hondar jardunaldia jokatu zen uztailaren 2an Orbaitzetan. Jakina denez, koxkor biltzen, Nafarroako txapelketan aritzeko bortz txartel banatzen dira torneo honetan. Hiru jardunaldietako bi denborarik onenak gehituta, bortz lehenbiziko kirolariek lortu dute Beran uztailaren 31n eginen den finalerako txartela. Fernando Etxegarai, gaur egungo Nafarroako eta Euskal Herriko txapelduna ez zen Orbaitzetan izan, baina lehen bi saioetan egindako denborak kontuan hartuz, bera izan da lehenbiziko sailkatua (12'12"). Iñigo Lasaga etxalartarra izan da bigarren (12'27"), Patxi Irazoki igantziarra hirugarren (12'39"), Berriozarko Iñaki Ekisoain laugarren (12'49") eta Berriozarko Josu Jimenez bosgarren (13'19"). Bortzak arituko dira finalean.

Ingude altxatzen Xabi Sein igantziarra izan da onena, hiru jardunaldietan 185 jasoaldi egin baititu, Carlos Seinek baino lau gehiago.

Harri altxatzen, Beintza-Labaienen sortu eta Leitzan bizi den Josetxo Urrutiak 9.575 kilo jaso ditu hiru saioetan eta beretzat izan da txapela.

#### Lehia estua lasto altxatzen

Lasto altxatzen eta zaku laisterketan aski lehia estua izan da. Lasto altxatzen Igantziko lau kirolari aritu ziren. Hiru saioetako altxaldiak kontuan hartuta, Carlos Sein eta Iñaki Bereauk 36na jasoaldi egin dituzte, Oskar Telletxeak 35 eta Xabi Seinek 34. Beraz, Sein eta Bereauk altxaldi kopuru bera egin dute, baina minutuz kanpo egindako altxaldien denbora ikusirik, Carlosentzat izan da lehen postua.

Zaku laisterketan, hiru jardunaldietako denborak gehituta, 5 zentesima eskasek erabaki dute txapela Berriozarko hirukotearentzat izatea. Iñaki Bereau, Josu Telletxea eta Eneko Mitxelenak osatutako hirukotea bigarren izan da sailkapen orokorrean.

Txinga eramaten, azkenik, Oskar Telletxea igantziarra jaun eta jabe izan da hiru jardunaldietan eta denera 1.064 metro egin ditu. Josetxo Urrutia labaiendarra bigarren izan da 519,35 metrorekin eta Xabier Igoa hirugarren, 463,5 metrorekin.

# AGENDA egunez egun

## BESTAK

**ITUREN**

**Uztailaren 15etik 18ra** herriko bestak. Xehetasunak 16. orrian.

**ELGORRIAGA**

**Uztailaren 24tik 28ra** Santiago bestak. Xehetasunak 15. orrian.

**ARANO**

**Uztailaren 24tik 28ra** Santiago bestak. Xehetasunak 18. orrian.

**ELIZONDO**

**Uztailaren 22tik 28ra** Santiago bestak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

## OSPAKIZUNAK

**SARA**

**Uztailaren 16an** Sarako Olhain ikastolako besta ospatuko da. Xehetasunak 24. orrian.

## BIZIKLETA ATERALDIAK

**SUNBILLA**

**Uztailaren 17an** Sunbilla-Lesaka-Agiña-Oiartzun-Behobia-Sunbilla ateraldia eginen du Ulibeltzak kirol taldeak.

**Uztailaren 23an** Sunbilla-Artesiaga-Eugi-Olague-Sunbilla ateraldia eginen du Ulibeltzak kirol taldeak.

## DANTZAK

**LESAKA**

**Uztailaren 25ean** dantza jaialdia eskainiko dute Plaza Zaharrean 20:00etan Armeniako Aravot Hayastan, Senegaleko Fambondi, Sri Lankako Sama Ballet Children's Dance Troupe, Irungo Ereintza eta Lesakako Tantirumairu dantza taldeek Bidasoaldeko Nazioarteko Gazteen Folklore Jaialdiaren barnean.

## TELEBISTAKO TXOKOA





IGANDE HONETAN ELIZONDON

# Ttipi-Ttapa Telebista Baztandarren Biltzarrean

Doneztebeko San Pedro bestekin ekin zioten telebistako lankideek aurtengo «Bestaz Besta» saioari. Urtero bezala, egunez egun Doneztebeko besta-giroa pantaila ttikian bildu dute, Joseba Olagarai eta Maite Bidarte aurkezleen eskutik. Lesakako San Ferminek eman zioten segida udako besta-eromenari eta joan den asteazkenetik hasita iganderarte programa berexiak egin dituzte egunero ilunabarreko 8tan. Doneztebe eta Lesakarekin besta potenteak momentuz akabatu badira ere, igande honetan Baztandarren Biltzarraren 42. edizioan egonen dira Ttipi-Ttapako kamarak. Horrela, Joseba Olagarai kazetariaren eskutik orgen desfilea hurbiletik segitzeko modua izanen dugu heldu den astelehenean. Irudirik frexkoenak eta elkarrizketarik bixienak bilduko dira.

**BESTETAKO DVD ETA BIDEOAK**

Urtero bezala, Ttipi-Ttapa Telebistak bestetako DVD eta bideoak prestatu ditu. Doneztebeko San Pedroetako edo Lesakako San Ferminetako saio berexiak ikusterik izan ez duenak oraindik badu aukera. Irudirik politenak eta erreportajerik bixienak bildu dira. Interesatuek Ttipi-Ttapako telefonora deitu: 948 635458ra.

## DISKAK




*«Gelditu denbora»*

**KEN ZAZPI**

*GOR DISKAK, 2005*

Ken Zazpi itzal handiko taldea bilakatu da euskarazko rockaren esparruan, sortu zirenetik orain arte grabatutako bi diskoei esker. «Atzo da bihar» (2001) eta «Bidean» (2003) arrakastatsuen ondotik, ezin erran «etorkizun handiko taldea» direnik, izan ere Ken Zazpi ongi errotutako banda dugu jada, errealitate bihurtutako talde esanguratsua. Ken Zazpiren hirugarren lana formatu akustikoan dator, «Gelditu denbora» du izenburu eta bertan kantu berriak (6) eta euren kantu ezagun batzuen moldaketa bereziak (7) tartekatzen dira, zenbaitzuetan soka laukote batek hornitua. Garate Studiosen zuzenean eta lagunartean grabatua, CDak bideoklip bat ere badakar, "Zapalduen olerkia» kantauren grabaketaren irudiekin egina. Kataluniarako propio egindako edizioa ere badu diskak.

## BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(Ekainaren 24tik uztailaren 1era bitarteko prezioak)

ZERRIKIA



**Zerrikumea**
(19 kilo). 29,00 € (=0,00)

**Zerri gizena**
1,180 € kiloa (-0,05)

**Zerramak:**
0,500 € Kg/bizirik. (=0,00)

BEHIKIA



**Aretze gizenak:**
**Idixkoak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3, 39 (-0,03)
**1.koa** 3,16 (-0,06)
**2.koa** 3,03 (-0,06)
**Urruxak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3,49 (-0,03)
**1.koa** 3,28 (-0,06)
**2.koa** 3,03 (-0,13)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Aretze mestizoak:**
urruxak 234,00 (=)
idixkoak 260,00 (=)

**Aretze nabarrak:**
urruxak 155,00 (-0,25)
idixkoak 180,00 (-0,25)
**Zaldikoak: €/k**
Sortuberriak: 2,90/3,01
Zaldi-behorrak: 1,67/1,87
**Bildotsak: €/k**
6-8 kilokoak: 6,35 / 6,55
8-10 kilokoak: 4,95 /5,45

## JAKIN BEHARREKOAK

# Ez utzi hoteleko harreran karneta edo kreditu-txartela

Legez kanpoko praktika hau hedatzen ari da hainbat lekutan

Abudo oporren garaia ailegatuko zaio jende aunitzeri eta Kantauri edo Mediterraneo aldeko kostalderako bidea hartuko dute. Urtebeteko lan gogorraren ondotik ongi merezitako atsedenaldia izanen da. Irache kontsumitzaile elkarteak, azken aldian Espainiako eta bertze herrialdeetako hotel batzuetan hedatu den praktika baten berri eman nahi du: hotelera iristerakoan kreditu-txartela edo karneta eskatzen dute, ordainketaren garantia gisara. Praktika honek legalitatea urratzen du eta arazo ugari sortzen ahal ditu, hala nola txartelarekin iruzur egitea edo kalera ateratzerakoan identifikatzeko ezintasuna, dokumenturik gabe baikaude.



ARTXIBOKOA

**Hoteleko langileak datuak hartu beharko ditu ekipaia desegin edo hotelean egokitzen garen bitartean, baina karneta itzultzea eskatu behar diogu hoteletik atera baino lehen.**

Hotelak izen-emate fitxa bat bete behar du karnetaren datuekin eta gero poliziari jakinarazten dizkio datu hauek, baina inoiz ere ez dute karnetarekin gelditu behar egonaldiak irauten duen denbora osoan. Hoteleko langileak datuak hartu beharko ditu ekipaia desegin edo hotelean egokitzen garen bitartean, baina karneta itzultzea eskatu behar diogu hoteletik atera baino lehen.

Kreditu-txartelari dagokionez, arriskua oraindik handiagoa da. Galdu, bikoiztu edo ebatsiz gero, kalte ekonomiko larriak eragiten ahal zaizkio kontsumitzaileari.

Inoiz ez dugu txartela hotelaren esku utzi behar, horrek duen arriskuarengatik. Izan ere, kontsumitzailearen obligazioa da bere esku izatea txartela eta zenbaki sekretua inori ere ez jakinaraztea.

Gainera, gertatzen ahal diren ebasketak saihesteko, balioa duten gauzak, txartelak eta dirua hoteletan dauden segurtasun-kutxetan gordetzea aholkatzen du Irachek. 4 eta 5 izarreko hotelek legez segurtasun-kutxa izan behar dute geletan. Ebasketa gertatzen bada, hagitz zaila suertatuko da hotelari erreklamatzea, ez badugu segurtasun-kutxa hori erabili.

## LIBURUAK



*Diruak behar luke bihotzik*

**Joseba AZKARRAGA**

*PAMIELA, 2005*

Abadiñoko Joseba Azkarragaren lehen saiakera lana da eta bere doktoretza tesiaren zatia. Euskal Herriko kaleetan dugu eztabaida: Galdu ote du Arrasateko kooperatibismo globalizatuak bere arima? Arrazoi ekonomikoaren eta pentsamendu bakarraren biktima izan ote da? Ba ote du gaur enpresa eta gizartea eraldatzeko asmorik? Edo bere burua haztea beste helbururik ez duen egitasmo iparrik gabea ote? Bultzada etikoa eta izaera bihoztuna abandonatu ote ditu arrakastaren etorbideen kale-kantoiren batean? Kooperatibismoaren kontraesanak areagotu dira aro globalean. Eta arriskutsuena zera da: jokabide etikoago baterako beharrezkoak diren kontzientzia oinarriak makaltzea, soro kulturala ahitzea. Behin erresistentzia horiek amildu ta, ateak parez pare zabaltzen baitzaizkio eraginkortasuna besterik bilatzen ez duen ekintza ildoari.

## AGENDA egunez egun

### ERAKUSKETAK

**ARIZKUN**

**Uztailaren 2tik urriaren 2ra** Xabier Soubelet margolariaren lanak ikusgai izanen dira Sastemea etxean.

**BERA**

**Uztailaren 1etik 24ra** Maddi Irazoki beratarraren lanen (pintura, eskultura, grabatuak, zainotipia eta kamisetak) erakusketa Kultur Etxean. Asteartetik larunbatera 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Igandetan 10:00etatik 14:00etara.

**DONEZTEBE**

**Ekainaren 30etik uztailaren 20ra** Clara Santamaria margolariaren oleoak ikusgai Turismo Bulegoko erakusketa gelan. 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

**ELIZONDO**

**Uztailaren 22tik abuztuaren 31ra** Mariano Sinués-en margo erakusketa Arizkunenea Kultur Etxean, goiz-arratsaldez. Cultur programazioaren barnean.

**BERTIZ**

**Uztailaren 22tik abuztuaren 31ra** Luis Garridoen margo erakusketa Jauremiko jauregian, goiz-arratsaldez. Cultur programazioaren barnean.

**ETXALAR**

**Uztailaren 8tik 24ra** Eli Mendiaren margo erakusketa Kultur Etxean. Astetartez 10:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:30etara. Asteburuak 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etatik 20:30etara.

### MENDI ATERALDIAK

**SUNBILLA**

**Uztailaren 31n** Sunbilla-Goizueta ateraldia eginen du Ulibeltzak kirol taldeak.

# MERKATU TTIKIA

ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

00-34 948 63 54 58

**...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!**

**ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

**GARAJEAK/LOKALAK**
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

**LURRAK/ORUBEAK**
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

**LANA**
301. Eskariak
302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
401. Eskaintzak
402. Akademiak

**MOTORRA**
501. Salerosketak
502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

**DENETARIK**
701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**
801. Agurrak



BULDAIN INMOBILIARIA

## ETXEBIZITZAK
### 101 Saldu

**LEITZA.** Pisua salgai Patxi Arrazola kalean, 1. pisuan. ☎ 616 918238.

## ETXEBIZITZAK
### 102 Erosi

**DONEZTEBE.** Bigarren eskuko pisua erosiko nuke. ☎ 628 725365.

## ETXEBIZITZAK
### 103 Errentan eman

**BERA.** Pisua errentan emanen nuke San Esteban 17an. ☎ 695 707644 (13:00etatik 15:00etara eta 20:00etatik aurrera).

## ETXEBIZITZAK
### 104 Errentan hartu

**LEITZA.** Leitzar bikote batek pisua hartuko luke errentan. ☎ 606 730177 (Mikel).

**BERA.** Pisua errentan hartuko nuke. ☎ 618 969461.

## GARAJEAK/LOKALAK
### 109 Errentan eman

**LEITZA.** Taberna eskualdatzen da. Sukalde berritua, terraza eta MNP. Erraztasunak ematen dira. ☎ 690 381194.

## ZERBITZUAK
### 208 Bertzelakoak

ARANTZA Zurgindegia
Osina auzoa

ADOS
• ELIZONDO. -2 eskuko pisuak salgai. - Egoera hagitz onean dagoen apartamentua salgai. - 1.100 m² dituen familia bakarreko etxea salgai.
• DONEZTEBE. - Eraikuntza berriko eta 2. eskuko pisuak salgai. - Eraikitzen ari diren azken pisua salgai.
• BERA. -Piso pare bat salgai. -Terrenoak eroslen dira.
• BAZTAN. - Eraikitzen ari diren azkeneko 2 apartamentu salgai. - Hainbat lur eremu eraikigarri salgai.
• ELGORRIAGA. Eraiki behar diren adosatuak salgai. Informa zaitez.
• ITUREN. Erreforma behar duen etxea bere baratzearekin salgai.
ETXALAR. Eraikitzen ari diren azkeneko etxe familiarra salgai.
BAZTAN-BIDASOAN: baserri, borda, etxeak, pisuak eta lur eremuak salgai.
948 451 841 / 948580705
www.ados-inmobiliaria.com

## LANA
### 301 Eskariak

**28 urteko neska euskaldunak** Doneztebe inguruan haurrak zainduko lituzke. Esperientzia eta erreferentziak dauzkat. ☎ 607 443903.

**24 urteko gazte batek,** C motako gida-baimena duena, lan eginen luke. ☎ 690 629693.

**Neska gaztea** eskaintzen da haurrak zaintzeko edo ostalaritzan lan egiteko. Doneztebe inguruan. ☎ 948 592115 (goizez).

**Malerrekako neska gaztea** eskaintzen da udan lan egiteko. ☎ 660 646100.

## LANA
### 302 Eskaintzak

**Dantxarineako** Xarota ostatuan ostatuko zerbitzari aritzeko pertsona bat behar da. Hasiera batean udarako eta gerora ere segitzeko aukerarekin. Baldintza onak. ☎ 661360084.

**HONDARRIBIA.** Emakume euskalduna behar dugu, 45-55 urtekoa, gurasoak zaintzeko, interna moduan. Baldintzei buruz hitzeginen dugu. ☎ 636 204527 edo 686 299103 (Lurdes-Javier).

**Frantses** pixka bat dakiten neska eta mutila behar dira udan lan egiteko. ☎ 948 631100 edo 948 630794 (gauez).

**SUNBILLA.** Cepsak irekibehar duen gasolindegirako langileak behar dira. ☎ 619 829289. Curriculuma bidaltzeko faxa: 948 625132.

**ETXALAR.** Herriko Ostatuan zerbitzaria behar da. Ordutegi ona, soldata hobea eta gazte giroa. Hasiera batean bi hilabeterako. ☎ 948 635450.

**ETXALAR.** Herriko Ostatuan asteburuetan ostatuko zerbitzari aritzeko jendea behar da. ☎ 948 635450.

**ETXALAR.** Herriko Ostatuan fregaderan aritzeko langileak behar dira, aste osoan aritzeko. ☎ 948 635450.

**Udan** lana egiteko zerbitzaria behar da jatetxe batean. ☎ 948 451951.

**IRUÑA.** Pastelerko obradore batean lan egiteko 25 urtetik gorako neska bat behar da. Esperientzia ez da beharrezkoa. ☎ 948220618 (Axun, dendako ordutegian).

**IRUÑA.** 35 urtetik gorako emakume bat behar da Iruñeko goxotegi-kafetegi batean lanean aritzeko. Egun erdiko lana. Bidali kurrikuluma, 100 apartatua, 31610 Atarrabia.

**Abuztuan** turistei inkestak egiteko jendea behar da. ☎ 619 829289.

**Elizondoko Benito Menni** ospitalak auxiliarrak eta erizain bat behar ditu udarako. Horietako bat epe luzeko kontratua egiteko aukerarekin. ☎ 948 452162 edo Curriculuma Benito Mennin utzi.

**Baztango Zahar Etxeak** ordezkapenetarako langileak behar ditu. ☎ 948 580730.

**Editorial batek** etxetik lan egiteko 50 kolaboratzaile behar ditu Nafarroan. Informazioa zehatza eta doan 371 Postakutxan, 06800 Merida.

**Peoiak**: igeltseroak, elektrizistak, iturginak eraikin publikoen mantenimendurako. Astelehenetik ortziralera,

Lan bila zabiltza?
LAN ESKAINTZA
OSASUNBIDEA
SUKALDE LAGUNTZAILEA KAMAREROA
LAN ESKAINTZA
GARBITZAILEAK
PEOIAK eta OFIZIOKO LANGILEAK ERAIKIN PUBLIKOETAKO MANTENIMENDUA
Presta zaitez. Informazioa dohan.
948 199 596

8etatik 15etara. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Osasunbidea.** Eskaintza: 126 erizain, 15 fisioterapeuta, 14 langile sozial, 16 laborategiko teknikari, 14 irpiteknikari, 65 erizain-laguntzaile, 57 zaintzaile, 37 zeladore. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Nekazaritzako ingeniari teknikoak.** 17 lanpostu Nafarroan. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Garbitzaileak.** Lanpostu finkoak eraikin publikoetan, ikastetxetan, ospitaleetan. Astelehenetik ortziralera 8etatik 15etara. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Gidariak** Lanpostu libreak: Iruña, udaletxetan. Astean 35 ordu. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Haurtzaindegi publikoak.** Bete behar da: haur zaindariak, heziztaileak. Lanegutegia: astelehenetik ortziralera. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Sukalde laguntzaileak**, kamareroak. Lanpostu finkoak. Ordutegia: 8etatik 15etara. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Elbarri fisikoak.** Lanpostu libreak: atezain, harreragile, lorezainak erakunde publikoetan. ☎ 948 199596.

**Osasunbidea, Udaletxeak.** Derrioz, Fitero, Burlata, Berrioplano, Iruña. Administrari laguntzaileak behar dira. Abuduo sartzeko. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Laborategia.** Teknikariak, laguntzaileak, zeladoreak, klinika laguntzaileak. Ospitaletarako lanpostu libreak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

## MOTORRA

### 501 Salerosketak

**Peugeot 206** 1.4 gasolinakoa salgai. 1999koa. Prezio onean. ☎ 616 861639.

**Renault Clio** 1.2 autoa salgai, NA-AM matrikula. ☎ 637 136542.

**KTM 200** motoa salgai, 2004koa. Egoera onean eta gutti erabilia. ☎ 637 136542 (Joseba).

**Kawasaki KX 250** cross-eko motoa salgai, 1993koa. Botak oparitzen dira. ☎ 615 707195.

**Renault Megane** Coupé 1.9 DCI autoa salgai, 105 zaldikoa. Oso egoera onean, 2000koa. Extra guziekin. ☎ 650450160.

**Suzuki DR 350** motoa salgai, NA-AW matrikuladuna. 12.000 km. Egoera hagitz onean. ☎ 948 631364.

**Golf III GTI** autoa salgai, 16 balbulakoa. 4.500 euro. ☎ 677 594892.

**Yamaha Fazer 600** motoa salgai. Plato, pinoi eta katea berriak. Gurpil berriak eta motoaren maleta opari. Hobe ikustea! ☎ 687 736973.



**Opel Corsa** 1.7 DI autoa salgai, 90 zaldikoa, 2001ekoa. Egoera onean, garantia abendura arte. ☎ 948 631054 edo 647 588844.

**Gas-gas 250 Editron** trialeko motoa salgai, 2003ekoa, matrikulatua. ☎ 647 588844.

**BMW 323 TI** Compac autoa salgai. 3 atekoa. 170 cv eta gasolinakoa. ☎ 635 696688

**Opel Tigra 1.6** autoa salgai. 16 balbulakoa, egoera onean eta prezio onean. ☎ 666 841383.

**BMW M3** autoa salgai, full equip., egoera onean. 10.818 euro (1.800.000 pezeta). ☎ 696 794345.

**Derbi FDS** motoa salgai. Egoera onean. 300 euro. ☎ 619 960122 (20:00etatik aurrera).

## MOTORRA

### 502 Tailerrak

TALLERES SANTESTEBAN
✆ 948 450283 • DONEZTEBE
KOTXE IA BERRIEN SALMENTA
(6-10 HILABETEKOAK)
CLIO, MODUS, KANGOO, MEGANE, LAGUNA, LAGUNA GRAND TOUR, ESPACE, SEDAN, MEGANE GRAND TOUR

BOAN
TAILERRA
autoen mekanika eta elektrizitatea
948 630 623 BERA

GANIX
Tailerra
· Ibilgailuen mekanika eta elektrizitatea
· FIAT zerbitzua
Iruñandeta, 9 · 948 630 669
BERA

SAMPI ARAGON
ZOANSA

MENDAUR MOTOR
Bigarren eskuko kotxeak:
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

## ANIMALIAK

### 602 Salerosketak

**Monturako behorra** salgai, baita hiru behoka ere, urte betekoak. Mantsoak dira. ☎ 639 050188.

## DENETARIK

### 702 Salerosketak

**Pixaren zisterna** salgai, 1.500 litrokoa eta bonbarekin. ☎ 948 637965.

**Pascuali traktorea** salgai, egoera onean. ☎ 948 615029.

**Hiru ahotseko trikitixa** salgai. Ikasle batena, oso gutti erabilia. Urte bat eta ongi zaindua. ☎ 687 675463.

## DENETARIK

### 703 Bertzelakoak

**Belarra lerroan jartzeko** makina handia daukat, bosoa kentzen zalona, eta gisako bertze ttikiago baten truke aldatuko nuke. ☎ 948 637447 (13:30etan edo 21:00etatik aitzinera).

**Karreterako bizikleta** mendikoarengatik aldatu edo salduko nuke. Talla 54, Shimano 105, 44 zenbakiko bota berriak. ☎ 637 873969.









## urtebetetzeak

Argazki soila: 3,5 €. Bikoitza: 7 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,28€ ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 3,5 edo 7 F ko txekea. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

**Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.** www.ttipi.info



Zugarramurdiko **Begoña Olagaray** uztailaren 22an urteak beteko ditu. Zorionak bere senarraren partetik.



Zugarramurdiko **Begoña Olagaray** uztailaren 22an urteak beteko ditu. Zorionak Maria eta Maialenen partetik.



**Mikel Sanz Serrano** Irurtakoak 18 urte bete ditu uztailaren 13an. Zorionak eta uda ona pasa aita-ama, aitatxi-amatxi eta lehengusuen partetik.



**Olaia Balezatena** leitzarrak uztailaren 2?ean 10 urte beteko ditu. Aunitz urtez etxekoen eta Aurtizko familiaren partetik. Muxu handi bat



**Carmen Altzuri Zozaia** igantziarrak 90 urte beteko ditu uztailaren 16an. Aunitz urtez eta muxu handi bat familiaren partetik.



Igantziko **Birramatxi** urte aunitz, aunitz-aunitz egiten ditu uztailaren 16an. Pa haundi-haundi bat Oihien partetik.



**Iker Loiarte Otxandorenak** urtea beteko du uztailaren 21ean. Aunitz urtez Leire eta Nerearen partetik. Muxu bat eta segi orain bezain irribarretsu.



**Alaitz Loiarte Otxandorena** irundarrak 4 urte beteko ditu uztailaren 23an. Zorionak Esther eta bere familiaren partetik. Muxuak.



**Iker Loiarte Otxandorena** zubietarrak urte bat beteko du uztailaren 21ean. Zorionak eta muxu handi bat Esther eta bere familiaren partetik.



**Xabier Igartzabal Jauntsaras** lesakarrak 3 urte bete ditu uztailaren 10ean. Zorionak gurasoen eta bereziki Amamen partetik.



**Nahia Sanchez Aracueñik** uztailaren 13an 3 urte beteko ditu. Zorionak "pitusa" zure familiaren partetik.



**Iker Loiarte Otxandorenak** urtea beteko du uztailaren 21ean. Aunitz urtez zure bi lehengusun pinpoxen partetik eta muxu handi-handi bat



Goizuetako **Iker Mirandak** uztailaren 10ean 5 urte bete ditu. Muxu handi bat Dior, aita eta amaren partetik.

**NORBAIT ZORIONTZEKO, BIDALI BERE ARGAZKIA, TESTUA ETA 0,28 EUROKO 13 SEILO TTIPI-TTAPAKO HELBIDERA:**



**ttipi-ttapa**
Andutzeta, 12
31760 ETXALAR

**Orain, ikusi urtebetetzeko argazkiak Internet-en www.ttipi.info**


Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

ORDOKI ALTZARIAK

ESTILO UGARIKO MOBLEAK

kortinak, lanparak... eta etxerako osagarriak

LARUNBAT GOIZ ETA ARRATSALDEZ IREKIA







ERAKUSKETA: Bittiria 26
SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 · Tfnoa: 948 63 77 80 · NA - 31770 LESAKA

**ttipi TXARTELA rekin**

***ttipi-ttapa doan eta deskontuak***

**>> AUTO ETA BIZIKLETA TAILERRAK**

| | | |
|---|---|---|
| BERAUTO | Bera | %5 Errekanbiotan |
| ZALAIN MOTOR | Bera | %5 Errekanbiotan |
| KATEA BIKE | Bera | %5 Konponketetan |
| DATUCELAY | Elizondo | %10 Bateria eta amortiguadoretan |
| SANSIÑENA | Elizondo | %15 Olio-aldaketetan |

**>> AUTO ESKOLAK**

| | | |
|---|---|---|
| SEMPER | Bera | %10 Matrikulan |

**>> ARGAZKI DENDAK**

| | | |
|---|---|---|
| GOIKO | Bera | %10 Karrete, errebelatze... |
| AYLA | Bera | %10 Errrebelatzea |
| MENA | Doneztebe | %10 Errrebelatzea |
| MENA | Elizondo | %10 Errrebelatzea |
| ZALDUA | Doneztebe | %10 Produktuetan |
| ZALDUA | Elizondo | %10 Produktuetan |

**>> ARROPA DENDAK**

| | | |
|---|---|---|
| ARRIET | Bera | %10 ( 30 € tik goiti, eskura ord. ) |
| EDURNE | Bera | %5 ( 30 € tik goiti, eskura ord. ) |
| J.J. PICABEA | Doneztebe | %10 Galtza-marka batzuetan ez |
| KAMAMILA | Doneztebe | %10 ( 30 € tik goiti ) |
| KATTALINGORRI | Elizondo | %10 |
| IPINGI | Elizondo | %10 (30 € tik goiti) |
| FANTXIKE | Elizondo | %10 (30 € tik goiti) |

**>> BITXIDENDAK**

| | | |
|---|---|---|
| ETXARTE | Lesaka | %10 bitxietan |

**>> ETXETRESNEN DENDAK**

| | | |
|---|---|---|
| ALTZURI | Lesaka | %5 etxetresnetan |

**>> ESTETIKA ZENTRUAK**

| | | |
|---|---|---|
| AMAIA | Doneztebe | %5 Kosmetikan (30 € tik goiti)<br>%10 Erregalo artikuluetan eta kosmetikan. Merkealdietan ez |

**>> KIROL DENDAK**

| | | |
|---|---|---|
| IPARLA KIROLAK | Elizondo | %8 (30 € tik goiti) |
| ZELA KIROLAK | Bera | %5 |
| AGARA KIROLAK | Bera | %5 Kirol artikuluetan |

**>> LENTZERIAK**

| | | |
|---|---|---|
| MARICRUZ | Doneztebe | %10 (30 € tik goiti) |
| | Elizondo | %10 (30 € tik goiti) |
| DEÑE | Lesaka | % 10 Lentzerian |

**>> LIBURU DENDAK**

| | | |
|---|---|---|
| NAFARPRESS | Elizondo | %10 Liburu eta ikas materialetan<br>Testuliburu eta bideoak ezik |
| MAIMUR | Leitza | %10 oparitzeko artikuluetan |

**>> OPTIKAK**

| | | |
|---|---|---|
| OSTARGI | Bera | %10 (30 € tik goiti) |
| ARGIBEL | Elizondo | %10 anteoju graduatuetan |
| | Doneztebe | %10 anteoju graduatuetan |

**>> PENTSUAK**

| | | |
|---|---|---|
| MENDAUR | Doneztebe | %5 Zakurrena, katuena... |

**>> TINDATEGIAK**

| | | |
|---|---|---|
| JAIONE | Doneztebe | %10 (12 € tik goiti) |

**>> ZAPATADENDAK**

| | | |
|---|---|---|
| KALOTXA | Bera | %5 (18 € tik goiti) |
| OSTIZ | Doneztebe | %10 |
| TXINELKA | Lesaka | %10 |

## ENBASEEK BEHAR BEZALA BEREIZTEA ESKATZEN DIZUTE

# BEREIZTU







## BAZTAN, BORTZIRIAK ETA MALERREKAN 164.000 Kg. ENBASE BERRESKURATU DITUGU

**Kontuan hartu birziklatze sistema etxean hasten dela. Bereiztu enbaseak eta sartu kolore horiko zaborrontzietan. Horrela egiten badugu ez dira zabortegietara eramanen eta ingurumena zainduko dugu. Guztion artean, oraindik gehiago egin dezakegu.**



**SEGI DEZAGUN ENBASEAK BEREIZTEN GURE HERRIAK ZAINTZEKO**

Baztango Udala

Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatea

Malerrekako Zerbitzu orokorren Mankomunitatea

**BIRZIKLATZEKO BEREIZTU**

www.ecoembes.com

ECOEMBES